



Marie-Monique Robin **Elikagaien industria** **kolpatu duen kazetaria**

- **Kilometroak 2011 Azpeitian** Baratzea, probetxuzko lezioa Ikasberri ikastolan
- **Xora filma** Kulturaren eta bizimoldearen transmisioaz
- **Daewoo** Deslokalizazioaren azken zartakoa
- **Larrun Emilio Majuelo**. Begirada sakon bat historiari, Nafarroatik
- **Erleen demokrazia** Erlauntzaren funtzionamendu asanbleariotik ikas dezakeguna



ARGIAren **albistegia** interneten

28. saioa
Aste
honetan...



► Iñaki Soto

Iruñea, 1975. Zarautzen bizi da. Gara egunkariko iritzi saileko arduraduna da. Filosofian lizentziatua. Doktorego tesia idazten ari da nazionalismoaren etikaz. Gara proiektuaren etorkizunaz, gaur egungo kazetaritzaz eta Euskal Herrian ireki den aro berriaz mintzatu gara.



► Kukutza gaztetxea

Bilboko Errekalde auzoko Kukutza gaztetxea albiste iturri dugu eraikina husteko mehatxuak milaka lagun mobilizatzea lortu duelako. Bilbon kulturgintza autogestionatuaren ikurretako bat da Kukutza eta orain dela 13 urte auzokideek zabaldutako fabrikaren ateak, egun udalak itxi nahi ditu.

► G-puntua bueltan da

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren fasea asteburu honetan hasi da. Orotara 24 bertsolari sailkatuko dira final-laurdenetarako, eta fase honetan batuko dira azken txapelketan final-aurrekoetara heldu zirenak.



Lehiaketa

Osatu marrazkia originaltasunez eta bidali erantzuna beranduegi@argia.com helbidera.

Saria: Bermeoko Atxurra hotelean bi lagunentzako asteburu pasa.



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera ➤



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko irailaren 25a, 2.291. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Nagore Amondarain:** «Oiongo nerabe batek Mikel Laboa ez ezagutzea denon ardura da». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- Erleen demokrazia liderrik gabea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 5

Pertsonaia

- **Marie-Monique Robin:** «Egunero pozoitzen gaituztenek saltzen dizkigute minbizia sendatzeko botikak». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Kilometroak 2011.** Baratzeta ikasgela bilakaturik. ARAITZ MUGURUZA EIZAGIRRE / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Munduari ezin lotuago. JOSÉ LUIS PADRÓN / 24
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 25
- Amatasuna eta lan baldintza duinak. IÑAKI ZUBELDIA / 26
- **Txandan** Besarkada. JUAN RAMON MAKUSO / 26
- Elebide eta EHU gaztelania sendotzen. PAKO SUDUPE / 27
- **Hiruko txikian** Ez zebilen. JOXEMARI OSTOLAZA / 27
- **Bertso berriak** Irargarkiz jarriak. BEÑAT ETXEBARRIA / 28

Erdiko kaiera

- **Zinema.** *Xora:* sortzeko beldurrik gabe. MIKEL ASURMENDI / 29
- **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 32
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 33
- **Ezpalak** JON TORNER / 34
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA, MIKEL GARCIA / 35
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Daewoo.** Deslokalizazioaren urratua Arabako lautadan. URKO APAOLAZA / 41
- **Euskanta 2011.** Italiar musikari txikiak euskaraz abesten. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** 'Corium' esatea debekatuta dago Fukushima. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Jai jasangarriak.** JOSE IGNAZIO ANSORENA / 50



“Oiongo nerabe batek Mikel Laboa ez ezagutzea denon ardura da”

Nagore Amondarain I
Itzaleko langilea

Ikastolen Elkartean orain, eta besteak beste.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Nekeza behar du nerabeekin aritzeak, are euskararen erabilera sustatzen.

Nerabezaroa distantzia laburrenera duenarentzat errazagoa da, presenteago dituzulako garai hark zituen irrika eta beharrianak. 50 urte ditudanerako jubilatuta egongo naiz; hori ari zaizkigu esaten ezta?

Badakizu, da rollo bat euskara.

Guretzat ere rollo bat zen gaztelania eta ikasteaz gain, erabiltzera derrigortu gaituzte. Osakidetzari zor diot “bihotzerrea” gaztelaniaz “ardor” dela ikastea.

Baina, gauden lasai, lortuko dugu euskal eskola publikoa.

Nik oraindik Baldin Badaren *Zirt Zart*, *eskola euskaldun publiko bat* kanta entzuten dut, eta abesten jarraitzen. 1986ko Ibilaldirako sortu zen, atera kontuak!

Ikastola publiko egitea edo eskola publikoa “euskal”, zer da eraginkorrago?

Ikastolak publiko dira, estatalak ez badira ere.

Katalunian hezkuntza eredu bakarrak kohesionatzen du gizartea; hemen, eskola eredu bakarra adosteko ere lanak.

Baina Kataluniakoa ere zalantzan dago, ez? Tribunalek gaztelania ere transmisio hizkuntza izan dadin neurriak hartzeko eskatu dute. Zein zaila den batzuetan emantzipatzea...

Elitistak omen dira Ikastolak.

Zoaz Iparraldeko, Erriberako, Errioxako ikastoletara edo Bilboko Abusu auzokora. Bueltan egingo dugu berba.

Eta total asmakeriazkoak, Euskal Herria gora, Euskal Herria behera.

Savater, Juaristi eta hauek jarri zuten modan Euskal Herri imajinarioa. Sarrionandiari irakurri diot, Euskal Herria Espainia bezain asmatua dela, eta ez dela faltsuagoa. Nazio bat eraiki nahian bagabiltza, bertako partaide izango diren guztiak integratu beharko ditugu.

Lan handia dagoela aurretik, alegia...

Biltzeko garaian gaude eta ez banatzeko. Auzolanak izan beharko du gure ikur, denaren beharrean gaude. Oiongo nerabe batek Mikel Laboa ez ezagutzea denon ardura da edo, modu berdinean, Hernaniko batek Arratia non dagoen ez jakitea.

Ikastolen Elkartea, Euskarazko Komunikazio Taldea, Hala Bedi... Idazletzat hartzen zaituzte oraindik?

Zantzo bat bota genuen Arratia bailaratik duela hamabost urte eta *Zantzoa* literatur fanzinea izan zuen ondorio. Denetarik egin dut harrez gero, baina ez dut libururik idatzi, beraz okerren bat egongo da nonbait.

Non gorde da, baina, Nagore Amondarain idazlea?

Zure eta nire unibertsitate garaian seguruenik. Irakurlea baino ez naiz, egun. ■

Erleen demokrazia liderrik gabea

Liderrik gabeko anarkia zorrotz organizatua. Autogestioa. Erabaki-ahalmen berdineko kideek ekarritako proposamenak eztabaidatzen dituen batzarra. Erleek demokrazia asanblearioz ebazten dituzte koloniaren hil ala biziko hautuak. Milioika urteko efikaziaren bermearekin eskaintzen digute eredua gizakioi.

PELLO ZUBIRIA KAMINO



AHAZTU ERREGINARENA, ipuina zen: erleek ez dute monarkiarik maite. Neguan 10.000 eta uda betean 30.000 kide inguru eduki ditzakeen eultzan denak dira erlama edo erlandere –horiek bai hitz egokiak!– bakararren arrautzetatik erretako anai-arrebak.

Erregina? Biziraupenari begiratuta hala iduri luke, ama 3-4 urtez bizi baita, aldiz, alaba langile antzuak 45-60 egunez besterik ez, ar/erlamandoak aste batzuk gehiago. Baina mundualdi luzeago horretan erlanderea gau eta egun lanean ariko da, arrautzak errun eta errun edukiko dute alabek derrigorrean,

**Erlemulkoa
leihoburutik zintzilik;
kokatu zenean
leihoak tapak itxita
edukiko zituen, kaxa
handia osatuz.**

aski emankor ari ez bada bultzaka eta hagin-ka. Erlama sekula ez da irtengo erlauntzetik, ez bada zahartutakoan kolonia berria sortzeko... Baina geroxeago helduko gara horretara.

Gora langileen Emepublika!

Erreginarena ez da gizakiak jende denetik erleez sortu dituen ipuin, legenda eta mito ugarietako bat baizik. Erlearen irudi harrian margotuak badira gutxienik Mesolito arotik. Mesopotamian, Egipton, Grezian, Indian, Txinan, Erroman, Mayatarretan... Zibilizazio guztietan lehen mailako lekua eman zaie



Ezkerrean Thomas D. Seeley biologoa, erlemulko baten aurrean. Lerroon goiko aldean Marielle Newsome biologo gaztea erleei aukeran eskaini zaizkien kaxetako baten aurrean, datozen erleen datuak biltzen.

sineskerietan, erlijioan, jaiotze-tiko hil arterainoko usadioetan, ekonomian eta jaietan. Giza-kiek eskura zezaketen ia gozagarri bakarria ezta zen kasik atzo arte, eztiz egin zen lehen-biziko ardoa.

Erlearen ezagutza zientifikoa txit berandu iritsi da. Ez da Virgiliorenganaino urrundu behar irakurtzeko erleak usteldutako idien larruazal-etatik sortzen omen direla eta antzekoak. Euskaraz erleez plazaratutako libururik zaharrenean, 1827an Iruñean inprimatutako *Erle gobernatzaileen guidariya, edo erleac gobernatceco modua* hartan, Joaquín de Santa Bárbara fraide karmelita arabarrak gogor erantzuten zien erleak erreginak erlamandoek ernaldutako arrautzetatik sortzen zirela ziote-nei, tartean erlearen sexualitatea zientifikoki demostratu zuen R.A.F. Reaumur-i. Ez, omen, sexu harremanik ez da erleetan, erlea da Andre Dona Mariarekin batera Jainkoak birjini-ka ama izatea baimendu dion izaki bakarria, kristauoi garbitasunaren etsenplu emateko.

Hala ere, urrun geratu dira Charles Butler-ek 1609an bataiatu bezala erle jendearena “The Feminine monarchy” jotzen zen garaiak. Zientzialari erlezaleek asko ikasi dute geroztik erlearen benetako izaeraz eta bizi-moduaz. Ikertzaileen artean klasikotzat jotzen da Karl Von Frisch zoologo austriarra, 1973an Nobel Saria irabazi zuena, *Erleen bizitza* famatuaren egilea, zeinetan ordura arte erleez demostratutakoak bildu zituen. Tartean, abereok elkarri informazioa pasatzeko erabiltzen duten dantzarena.

Orain *Honeybee Democracy* (Princeton University Press, 2010) plazaratu duen Thomas D. Seeley biologoa bere ikerlanak Von Frischek markatutako ildoan mamitu ditu.

Erabakia ez du lider batek finkatzen baizik eta kide askok, boto libre eta pisu berdinekoekin. Eztabaidan ehunka erlek hartzen dutenez parte, iturri askotako informazioak alderatzen dituzte

Cornell University-ko Neurobiologia sailaren buru Seeleyk aurretik argitaratuak ditu dagoeneko xomorrootaz klasikotzat jotzen diren *The Wisdom of the Hive* eta *Honeybee Ecology*.

Erlearen benetako erditzea

Erleen demokrazian Seeleyk laburbildu du nola burutzen duten animalioek demokratikoki familiaren eta espeziearen biziraupena jotzen deneko hauturik garrantzitsuena: kale gorritik aterpetzeko premiazkoa duten bizileku berria non kokatu. Eta ez du erabakiko inongo erregina edo liderrek, langileek deliberatuko dute eztabaida luzez eta biziz.

Kontua da “erlauntz”, “eultze” edo “kofoin” deitzen dugun erle-unitatea bere burua erdibanatuz ugaltzen dela. Taldea aski handitu denean, leku faltan, edo erregina zahartzen ari zaionean, erleek ulertzen dute batez bi egiteko ordua heldu dela. Hasteko, bigarren taldea sortzeko, langileek amagai –erreginagai– berriak jaioaraziko dituzte. Langile antzuek ondo dakite –40 milioi urte baino gehiagorik erabili dute sistema–, beraiek bezala antzu sortu behar zuten milaka ahizpetako bakan batzuk erlama jaio daitezkeela, baldin eta era berezian elikatzen badituzte sortu aurretiko egunetan. Horra nola burutu duen Errepublikak Emeak –“Emepublikak?”– eszinditzeko hautu estrategikoa.

Espeziearen biziraupena dago jokoan zati-keetan. Erlauntz zaharra ondo frogatutako egoitza denez, bertan geratu da odola berrituko duen familia gaztea: ama zaharrak errundako ume-sabia, milaka arrautza, larba eta ninfa jaiotzeaz daudenak, gehi langile gazteenak, jaioberriei lehen egunetan laguntzeko entrena-




tuta daudenak. Bertan geratuko dira amaren gene altxorra daramaten erlamandoak, inguruko eultzeetako eme birjinei semenarekin pasatzeko irrikiz. Eta, horra inportanteena, familiari jarraipena emango dioten eme-erreginagai berriak, odol berriz segurtatzeko koloniaren jarraipena.

Bitartean, erlauntz zaharretik alde egin behar du erregina zaharrak langile zaharrenekin. Irten aurretik bidaiarako eztiz ondo ase dira eta soinu bereziak egiten aritu: “Erlea kantari ari da” diote erlezainek. Eta halako batean, etxolatik jalgi eta inguruko adaxkaren batean zintzilik kokatuko dira, “erlekumea” edo “erlemulkoa” osatuz. Apiriletik uda bitartean nork ez ditu ikusi kaleko zuhaitzen batean? Ez janaririk, ez babesik, ez umeak eta ezta pilatzeko aberaskarik gabe, egun gutxiko tartea dauka mulkoak bizileku berria aurkitzeko. Hil ala bizikoa izango dute ondo eta azkar erabakitzea. Lauzpa-bost egun horietako ahalegin agoniakoaren kontakizun zientifikoa da Thomas Seeleyk egin duena *Honeybee Democracy*.

‘Sherpak’ familiarentzako babesleku bila

Gehienetan akabera ona duen exodo honetako protagonistak erle langileen arteko zaharrenak dira, ingelesez “scout” deitu dituztenak, heldutasunean ondo aurreratutako langile espezializatuak. Langileetatik edozeinek 6-8 asteko bizitza laburrean ofizio ezberdin andana burutzen ditu: jaio eta berehala garbitze lanetan aritu ostean, bere ahizpen inude izanzen da, almagaren kudeatzaile, argizari ekoizle eta aberaska eraikitzaile, atezain, eta azkenik larrelari, hau da, ezti, polen eta ur ekarle. Lantegirik arriskutsuena azkenerako uzten dute xomorrook, horrela hiltzen dira gehienak kanpoan, garraioan leher eginda, istripuz edo etsaiek harrapatuta. Lorerik lore bilketan dabiltzan erle zaharren artean batzuk berezitzen dira esploratzailer lanetan: besteei ezti edo polen iturri berriak non dauden jakinarazten dieten aitzindari, bigegile edo “sherpak” dira.

Erlemulkoa erlandere zaharra babestuz adarren batean zintzilik dagoen bitartean, aitzindariak berehala hasiko dira etxe berri bila. Ondoko ordu eta egunetan bakoitzak eman-go dio taldeari aurkitu duenaren berri, eta



Erleak dantzan “8”a osatzen du bi zirkulu marratzuz. Erdiko ardatzarekin markatzen du ezti edo polen iturria zenbat gradutara dagoen eguzkiarekiko.

saiatuko da leku hartara kide gehiago eramaten. Informazioa sozializatzearekin batera hasiko da proposamenen arteko lehia luzea, gutxitan ordu batzuk eta sarritan hiruzpalau egun iraungo dituen. Baina nola aukeratzeten dituzte bizilekuak, nola eztabaizatzen dituzte aukera ezberdinak, nola erabakitzen dute, nola konbentzitzen dute talde osoa geldialditik atera eta txoko berrira mugitzeko? Hona Thomas D. Seeleyren konklusioak.

Gakoetako bat erleek informazioa elkarrekin partekatzeak daukaten komunikabidean datza. Dantzan, alegia. Ohiko jardunean, erlauntzako beharginak elikagaien bilketan dabiltzanean, aitzindariak familiari ekartzen dizkiote aurkitu dituzten ezti edo polen iturrien albiste eta mostak. Von Frischek demostratu zuenez, erleek “8” zenbakiaren antzeko irudia marrazten dute, erdiko ardatzaren norabidearekin markatuz ezti-polenak non diren; dantza arinago edo motelago eginez adierazten dute iturria gertuago edo urrunago dagoen. Interneten “honeybee waggle dance” ipinita bideo mordoxxa aurkitu daitezke dantzaren irudiekin. Etxe bila dabiltzanean, “scout” bakoitzak dantza hori bera erabiliko du inguruko ahizpei erakusteko non eta nolako etxea topatu duen.

Dantza txapelketa kofinean

Nolako etxea nahi duten? 40 milioi urtetan selekzio naturalak itsatsi dizkie irizpideak beren burmuin txikietan: aukeran hobetsiko dute 40 litro inguruko kabiera duen hutsune lehorra, lurretik 6 metro inguruko altueran dagoena, 10-30 zentimetro koadroko sarbidea daukana, hego aldera nahiago. Zoko bat aurkitutakoan, sherpak ondo neurtuko du, behin eta berriro hormetatik ibiliz. Gero, mul-

kora itzulita, dantza bidez jakinaraziko die ingurukoei. Berdin egingo dute bilaketan airtuta itzuli diren beste batzuek. Eta ondoren go ordutan ikusiko da erleen eztabaida, dantzakako lehia, erleen demokrazia praktikoa.

“Erlemulko batek bizileku berria bilatzen duenean –idatzi du Seeleyk– zuzeneko demokrazia deitua obratzen du, zeinetan komunitate bateko kideek parte hartzen duten nork bere izenean eta ez besteren ordezkari”. 1970eko hamarkadan “asanbladak” deitzen ziren batzarrak ez daude gaur modan mundu

aberatsean, ez bada zenbait elkarte eta kooperatibatan. Politikan, Suitzako herri batzuek atxikitzen dute auzotarren herri batzarra, eta Thomas D. Seeleyk ezagutzen ditu bera bizi den AEBetako kosta atlantiarrean ere. Haue-tako eta erlemulkoetako eztabaidek badute, bere ustetan, antzekotasunik.

Erabakia ez du lider batek finkatzen baizik eta kide askok, boto libre eta pisu berdineko-ekin. Eztabaidan ehunka erlek hartzen dutenez parte, iturri askotako informazioak alderatzen dira, kide batek bakarka inoiz bildu ezingo lituzkeenak. Abantaila handia da: zenbat eta aukera zabalagoa, onena hautatzeko probabilitate handiagoa. Informatzaile bakoitzak berea iragartzen du, entzuleetako batzuek bisitatzen dute lekua, hauek itzulitakoan indar handiagoz edo txikiagoz egiten dute dantza, ondoko kide gehiagok baloratzen dute... Horrela doaz dantzak kide gehi-go edo gutxiago bilduz. Joera nagusiak nabarmentzen dira.

Appeldore uhartean, AEBetako Maine estatuan, egindako esperimentuetan Seeley

Une jakin batean erleek eztabaida eten egiten dute proposamen nagusiaren alde halako dantzari kopuru bat biltzen denean. Kontsentsua lortutakoan, berehala hasiko da lekualdaketa

irakasleak eta bere lankideak ohartu dira une jakin batean erleek eztabaida eten egiten dutela proposamen nagusiaren alde halako dantzari kopuru bat biltzen denean. Aski, denak gelditzen dira. Minoritarioek amore eman dute. Eta eskerrak. Mulkoan zintzilik “probisional” bizi diren erleak bertan akabatu-tuko lirateke hotzez eta gosez dantzaldia sobera luza baledi.

Kontsentsua lortutakoan, berehala hasiko da lekualdaketa. Erle bidegile horiek berek gidatuko dute elkarte osoa jau-regi berriraino. Kalean ere askok ikusi dute erlekumearen hegaldia: adarretik askatuta, laino antzeko bat osatzen dute, poliki mugitzen dira hasieran, abiadura handia hartzen gero, kokagunera iritsitakoan berriz frenatu, eta minutu oso gutxitan denak barrura, erlama zaharraren atzetik. Hasi da bizi berria, bihar-munetik denak berriro lanera. Urtebete edo bi barru gertatuko da kolonia honen hurrengo eszisia, hurrengo ugalketa, baina oraingo odisea egin duten milaka erleotatik bakar batek ez du ikusiko.

Bost ikasgai gizakion batzarretarako

Erlearen jokabidea hain sakon aztertu duen Thomas D. Seeleyk irakurleari zenbait ikasgai proposatzen dio, jendez osatu taldeei baliagarri zaizkielakoan. Lehena: erabaki bat hartu behar duen taldea osatzerakoan, kontuan izan kideek interes berdinak eduki behar dituztela eta elkarrekiko begirunea. Erle bakoitzaren etorkizuna taldearen bera da, bakoitzaren geneak eta denenak amak dauzka.

Bigarrenik, ahal hainbat gutxitu lider baten eragina taldearen pentsamenduan. Gizakiek ia beti dutenez liderren bat, honek talde lana bultzatu behar du, ezbaia moderatu, bilatzai-leak animatu, baina ez aldeztu aukeretako bat; kontsentsua bultzatu.

Hirugarren lezioa, arazo bati soluzio bat baino gehiago bilatu. Horretarako segurtatu behar da taldea aski indartsu eta anitza izatea, kideen bilaketa lanak sustatu eta proposamenak aurkezteko giro ona segurtatu.

Laugarrena: talde osoak aukera guztiez duen ezagutza hobetu eztabaidaren bidez. Erle sherpa bakoitzak dantzarekin egiten du berearen propaganda eta harekin ados daudene-k gero dantza bera egingo dute, baina inork ez du dantza egiten imitazio hutsez, esan dioten lekua bertatik ikusi ondoren bai-zik. Horrelako komunikazioa bultzatu behar du giza taldearen eztabaidak.


Eta bosgarren ikasgaia: taldearen kohesio-arekin batera erabakiaren zuzentasuna eta

Apimondia 2011 Buenos Airesen


Amsterdamen 1949an sortu zuten Apimondia elkarte. Ordurako, 1895etik hasita, 13 nazioarteko biltzar burutuak zituzten mundu osoko erlezain elkarteek. Geroztik, bi urtez behin antolatzen du Apimondiak nazioarteko biltzarra, beti kontinente ezberdinetan: 2009an Frantziako Montpellie-rran, aurten Argentinako Buenos Airesen, 2013an Ukrainan. Irailaren 21etik 25era bitartean ApiExpo azokaren ia 3.000 metro koadroetan erlezaintzari lotutako hornitzaile eta saltzaileek erakutsiko dituzte beren produktu, teknologia eta makinaria berrie-nak. Erakustazokak biltzen dituen arren bisitari gehien, sektoreak bizi duen mugimenduaren beste termometroa Apimondia-ren zazpi batzorde zientifikoen sinposiu-mek osatzen dute: Landa-eremuaren garapena, Teknologia eta Kalitatea, Apite-rapia, Polinizazioa eta landaredia, Erleen patologia, Biologia eta Erleen inguruko ekonomia. Buenos Aireseraino hurbildu ezinean, erledun euskaldunari geratzen zaio Interneten arakatuz han aurkeztutako ponentzien arrastoa aurkitzea.

Erlemulko baten bi eguneko batzarraren kronologia

Uztailak 20



Uztailak 21



0 1 2 km



erle 1
10 erle
20 erle

Erlemulko baten eztabaidari Seeleyren ekipoak egindako jarraipenaren eskema. Aukera bakoitzean nabarmendu dira norabidea, aukeratutako txokoarekiko distantzia (marraren luzera) eta alde dantzan ari den erle kopurua (lodiera).

abiadura bermatzeko cuoruma usatu tresnatzat. Erleetan, aukera baten alde halako kopuru jakin bat biltzen denean, gainerakoek ulertzen dute aski cuorum lortu duela eta beste aukeren aldezleek amore ematen dute, kontsentsura helduz. Gizakien kasuan, kontsentsu bila Seeleyk uste du oso tresna ona dela eztabaida bat aurrera samartua dagoenean sondaketa moduko bozketak egitea; bozketa formal eta sekretuak baina tenperatura hartzeak, iritziak nola dauden neurtzeko. Normalean –beti egokitu daiteke kide oso-oso setatiren bat– kideen %80 hautu baten alde dagoela ikusten denean, gainerakoak ere biltzen dira kontsentsura.

Enpresa eta elkarteetan mixiolari moduan dabilen aholkulariek urrezko aukera lukete, ez balitz hain subertsiboa, erleen liderrik

gabeko demokrazian. Thomas D. Seeley honela laburbildu du irakaspena: “Milioika urtez erlemulkoetan erle bidegileek beren gain hartu dute norbere taldearentzako bizileku txukuna aukeratzeko beharra. Eboluziozko denboraldi luze horretan, selekzio naturalak egituratu ditu xomorren bilaketa taldeak ahalik eta hautu onenak egin ditzaten. Orain gizakiok ezagutzen dugu hautaketa prozesu irudimentsu hori nola burutzen duten, eta aukera daukagu ezagutza hau gure bizimoduak hobetzeko baliatzeko”.

Nola deitu sistema honi: liderrik gabeko demokrazia, demokrazia asanblearioa, akrazia egituratua, komunismo libertarioa, emeen errepublika igualitarioa...? Zuk nahi duzun moduan izendatu, baina metodoak 40 milioi urteko esperientziaren bermea dauka. ■

Marie-Monique Robin

«Egunero pozoitzen gaituztenek saltzen dizkigute minbizia sendatzeko botikak»

Bizi-esperantza jaistean esperantza bizia geratuko zaigu.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zure kazetaritzaren ikusmoldea gainbehera doa.

Kazetaritza engaiatua aldarrikatzen dut. Demokrazia batean prentsak laugarren boterea izan behar luke. Albert Londres-ek, baldintza susmagarrietan hil zen joan den mende hasierako kazetari eta nire buru-maisuak, beti esaten zuen kazetarien lana ez zela ongi edo gaizki esaka aritzea, luma zaurian sartzea baizik. Bera, esaterako, biblia saltzailez mozturatu zen Cayenne-ko presondegi higuinarrira sartu eta salaketa erreportaje bat idazteko. Hori eginik, Asanblea Nazionalera jo zuen legebiltzarkideei artikulua irakurri zutenentz galdetzeraz, eta ez zien bakerik eman presondegi hura itxi zuten arte. Horregatik aldarrikatzen dut kazetaritza engaiatu bat, jendea hunkitzen duten gizarte gaiak muturreraino ikertzen dituen, eta boterearekiko kontzesiorik gabea.

Prentsa ez dago beste arlo batzuetan zure ikerketek salatzen duten erabateko kontrol-nahitik salbu?

Zorritzarrez, munduaren eboluzioak alor ekonomiko orotako kontzentrazio zorrotz eta zehatza ekarri digu. Monsanto urtero haziak erostea inposatuz elikatze katearen lehen katebegia bere egiten duen gisan, prentsa ez dago hegemonia horretatik salbu, nahi ala ez sektore ekonomiko bat bilakatu baita. Frantzia, asfalto enpresa handienak kontrolatzen du telebista kate garrantzitsuenak. Ez dira garai onak prentsaren independentziarentzat. Bukatu dira kazetak kazetariak sortzen eta zuzen-

tzen zituzten garaiak. Egun, Lagardere kasu, egunkari bat arma saltzaile batena izan daiteke.

Horrek jasotako laudorioak bezainbateko presio eta trabak izan dituzula esan nahi du?

25 urte daramatzat ofizioan, gai delikatu, zail eta, zergatik ez esan, arriskutsuen bueltan ikeritzen. Mundu osoan zehar lagun asko egin ditut baina baita botere handia daukaten etsai zenbait ere. Jakina da industria kimiko osoak nahiago lukeela planeta honetatik desagertuko banintz. Zorionekoa naiz alta, nire lanak oso ezagunak direlako, hizkuntza anitzetara itzuliak izan direlako, eta hori sekulako babes da niretzat, izan dezakedan segurtasun neurritik behinena. Interneten oso presente egonda sare bat eraikitzen da, eta badakit zerbait gertatuko balitzait edo epailearen aurrera eramango banindute, berehala mobilizatuko litzatekeela jendea. Hori zoragarria bezain lasaigarria da.

Nortasun agiria

Kazetari, zinegile eta idazle hau 1960an sortu zen Frantziako Deux Sèvres eskualdean. Ikerketa anitzen egile, liburu eta filmetan plazaratzen ditu bere lanaren emaitzak eta mundu osoan sari anitz jaso ditu. *Heriotzaren eskudroiak eta frantses eskola* (2003), mundu guztia aho-zabalik utzi zuen *Mundua Monsantoaren arabera* (2008), *Torturak Made in USA* (2009), eta *Eguneroko Gure Pozoia* (2011) dira bere lanik esan-guratsuenak.





Lasaigarria ez dakit, baina zoragarria behar du norbere lanari esker 400 epaiketarik gora berriz zabaldu eta Argentinako diktadurako goi kargu asko akusatuen aulkian eseri izana.

Oso harro nago, asebeteta. Horretarakoxe egiten dut lan, horixe da luma zaurian sartzea. Satisfakzio itzela da kazetaritzaren bidez ere mundua aldatu daitekeela ikustea. Ederra da eraikinari norbere harria eranstea, eta bide batez, arazo globalei erantzun lokalekin aurre egiten dietenen etxea sendotzea. Denok, garenetik eta gaudenetik, daukagu zeregina. Ezin dela ezer egin, dena galduta dagoela pentsatzeko joera dago, baina gezurra da. Nik, kazetaria izanda kazetaritzatik eragin dezakedan bezala, bakoitzak astindu dezake bere ingurua eta hori oso berri ona da.

Dena ez da berri ona, ordea. Salatu duzun oro ez da epaitua izan. Hor daude Monsanto, Bushen tortura basatiak, Heriotzaren eskua droietako agintari frantsesak...

Bush kartzelara igortzea amets bat da, ez prentesio bat. Zentzu horretan, etsigarria izan daiteke, baina egiten dudanak balio duela sinetsiko ez banu pikutara bidaliko nuke dena. Denek nahi genuke gauzak azkarrago joatea, gure lanek oihartzun eta ondorio zuzenagoak izatea, baina tantaz tanta harria zulatzen doan irudia ez ahanzte komeni da. Adibidez, Heriotzaren eskuadroien inguruko dokumentalaren ostean Frantzian Batzorde parlamentario bat sortzeko proposamena egon zen, nahiz eta azkenean dena bertan

behera geratu. Baina orain jendeak badaki Frantziak eta frantsesek zer paper jokatu zuten Argentinako diktaduran, eta hori auzi bat bezain inportantea da. Jende bat lege guztien gainetik dagoela? Jakina, baina borondate kontua da dena. Horregatik diot politikariek euren ardurak dituztela, baina herritarrok ere bultzatu behar dugula, aktiboagoak izan, bildu, exijitu, aldarrikatu. Horretarako ere egiten ditut filmak, nire lanak jendea mobilizatzeko tresnak izatea nahi nukeelako, horixe baita nire lanaren jarraipena.

Botere ekonomikoak ez balu botere politikoa irentsiko gehiago begiratuko genioke platerean daukagunari?

Botere ekonomikoa indartzeko modu bakarra kontsumitzaileak errotutako modeloaren atzetik ardien gisa joatea da. Produktu horiek ez ditugula nahi eta ez ditugula gehiago erosi esaten badugu ez daukate zereginik. Jakina botere ekonomikoa oso indartsua dela, oso kontzentratua, baina derrigortuta dago kontsumitzaileengan oinarritzera. Egun, II. Mundu Gerraren ostean masa kontsumoarekin martxan jarri zen prozesu luzearen ondorioak pairatzen ari gara. Fabriketan milaka produktu ekoizten hasi ginen, nola ekoizten ziren eta zer ondorio izan zezaketen arduratu gabe. Hori gutxi ez eta legedi guztiak eraginkorra ez den sistema batean oinarritu ditugu: "Pozoia dosian datza" XVI. mendeko Paracelse mediku suitzarraren printzipioan. Bage-nekien produktu asko toxikoak zirela, baina dosi txikian izanik arriskutik libre geundela uste izan dugu. Nik kontrakoa frogatu dut, printzipio horrek ez digula balio, ez duela funtzionatzen. Produktu toxikoek inbaditu gaituzte eta bistakoa da eritasun askoren zioa hortxe dagoela.

Industriak frogen emaitzak faltsutzen ditue-nean, arautze eta kontrol erakundeak ustelduta

daudenean, arautze irizpidea zientifikoa ez denean... Norekin fidatu gaitezke?

Produktu kimikoen arautze sistema goitik behera berrikusi beharra dago. Eguneko Dosi Jasangarriaren printzipioa ez da eraginkorra, produktuak babesten dituelako kontsumitzaileak babestu beharrean. Harago joz, arautze eta kontrol agentzietan lan egiten duten aditueta askok industriarekin lotura zuzena dute, gardentasun falta izugarria eraginez. Horren azpian ordea, ezinbesteko galdera dago: zenbateraino gaude prest garapenaren eta ongizate teknologikoaren izenean gure osasuna eta ingurumena kaltetzen duten produktuak onartzeko? Denok gara erantzunaren parte. Konferentzietan jendeak plastikorik gabe nola bizi litekeen galdetzen dit. Jakina ez dela samurra. Baina horrek esan nahi du herritarrok sekula izan ez dugun eztabaida ukan behar dugula, orain arte etorri zaiguna begiak itxita onartu dugulako. Kolektiboki erabaki onak hartzea da goi-agintariak mugiarazteko bide bakarra.

Horretarako gure existentziaz haragoko bisioa behar genuke, alta.

XX. mende osoan, kimikaren mendean, baliabide agortezinak genituela eta dena betiko zela sinetsita bizi izan gara. Orain badakigu hori ez dela hala, ezin diegula mundu osoko alarma hotsei entzungor egin. Klimaren krisia geroz eta nabarmenagoa da, ukatzen dutenak ipurdibistan uzterainokoa. Krisi energetikoa ere gainera datorkigu, kontsumo sistema guztia petrolio merkean oinarritzen baita, eta erreserben limiteetara heltzen ari garen honetan fite eta zuzen deliberatu beharko dugu. Krisiekin segituz, biodibertsitatearen ez dauka izenik, katastrofikoa da. Azken lanean deskribatzen dudana krisi sanitarioa ere mahai gainean dago: gaixoak daude, hildakoak, pobrezia, gosetea... Nire hurrengo lanean nola elikatu mundua

“Produktu toxikoak dosi txikian hartuta arriskutik libre geundela uste izan dugu. Nik kontrakoa frogatu dut”

galderari erantzuten saiatuko naiz, hil ala biziko bidegurutzetan baikaude. Ez baditugu ekoizteko modua eta gizarte ereduak aldatzeko erabakiak hartzen, hormara goaz zuzen-zuzenean, eta ez hemendik 3.000 urtera, mende honen akabuan baizik. Ondorioak gure haur eta ilobek pairatuko dituzte. Orain hamar urte ez nuen uste sekula halakorik esango nuenik, baina orain begi-bistakoa zait. Urgentzia sentimendua geroz eta itogarriagoa da.

Elikatu liteke mundua pestizidarik gabe?

Hori da erronka, gauza bat baita gertatzen dena salatzea eta bestea soluzioak aportatzea. Kimikaren industriak beti esan du ezinezkoa dela mundua elikatzea pestizidarik gabe. Ni, Olivier de Schutter Nazio Batuen elikatze

eskubidearen arduradunaren agro-ekologiari buruzko txostenean oinarritzen naiz, eta bai, elikatu liteke mundua pestizidarik gabe. Funtzionatzen duten esperientzia andana dago munduan, ekonomikoki oso errentagarriak direnak, eta gauzak beste modu batera egin

daitezkeela argiki frogatzen dutenak. Kimikaren industriak pestizidarik gabe mundua ezin dela elikatu dioenean, garbi erantzun behar zaio pestizidekin ere ez dela mundua elikatzen, euren sistemak ere ez duela funtzionatzen. Ahaztu ote zaie milaka pertsona dagoe la munduan malnutriziopean? Ahaztu behar ez dena da agrokimika petrolioan oinarritzen diren pestizida eta ongarri kimikoetan sustatzen dela, beraz ezin daitekeela betiko izan. Hori gutxi ez eta gure ur erreserbak agortzen eta zoruen kalitatea zapuzten duen sistema da. Badakigu laborantza industrialak praktikatzen duten herrialde guztietan zoruak hiltzorian daudela, muga-mugan gabiltzala, eta laster desertifikazio arazoekin egingo dugula topo. Sistema zaharrak ez du funtzionatzen, datuek sistema berri bat posible dela diote, beraz bistakoa da bidea.



Mundua Monsantoen arabera eta TV3

"TV3 Mundua Monsantoen arabera pelikularen ekoizleetako bat zen, baina bi urtez baino gehiagoz eduki dute pelikula kaxoian gordeta Katalunia eta Generalitatea jitez aldatutako organismoen aldekoa delako. *Vanguardiak* artikulu bat idatzi behar izan zuen filma munduan bueltaka zebilela esanez, Espainian liburua eta filma aurkeztuta zeudela oroitaraziz, eta TV3 ekoizleetako bat izanik zeren zain zeuden galdetuz. Monsanto-ren presio itzelak zeuzkaten antza, DVD-ak saltzea ukatzerainoko presioak".



Monsantoren morrontzatik eta zoruetan egin dituen sarrasketatik askatzea kostatuko zaigula bezain bistakoa.

Jakina, baina une batean erabakia hartu beharko da. Kanada eta Estatu Batuetan, esaterako, Genetikoki Aldatutako Organismo anitz landatzen da eta zoruak izugarri kutsatuta daude, hilik ia. Deskontaminatu beharko dira, horretarako denbora hartu. Oرائنتس, Alemaniako nekazari batek bere aita 70eko hamarkadaren hasieran laborantza biologikora pasa zela ziotan, orduan jada bere zoruak zatz eginda zeudela ohartu zelako. Denbora behar izan du lurrak biziberritzeko, baina lortu du, lurra ahaltsua baita, egoerari buelta emateko gaitua. Garbi dago trantsizio garai bat egongo dela. Europan subentzio sistema bat dago, eta oraingoz kutsatzaile handienak laguntzen badituzte ere, zergatik ez da laborantza biologikorako saltoa subentzionatuko? Jakina lehen urteak nekezak izango direla, lurrak desintoxikatzea behar direlako, baina zinez diotsut laguntzak egongo balira laborari anitzek emango lukeela urratsa. Laborari eta laborari familitan gaixo asko dago pestiziden erruz, batek Parkinsona dauka, minbizia bestea, eta gehienak oso gaztetatik. Ezin dute gehiago eta pausoa emateko falta zaien bakarra sostengua da. Erabaki bat baizik ez da, borondate politiko hutsa.

Gizarte segurantzaren leherketak irekiko dizkigu begiak?

Ulrich Beck soziologo alemaniarrek ongi dienez arriskuaren gizartean bizi gara. Garapenaren izenean galera eta koste humanoak egon daitezkeela onartzen dugu eta ahal bezain txikienak izan daitezen errezatu. II. Mundu Gerratik hona sortu diren arautze agentzia guztiek arriskua txikitzeke xedea dute, ez arriskua desagerraraztekoa. Arriskua eliminatuko bagenu produktu horiek guztiak debekatu behar genituzke, eta ondorioz, kontsumo gizarte osoa berrikusi. Gizarte segurantzaren kontuetan arakatu eta eurek aitortzen dute gaixotasun kronikoen emendatze izugarri batek eragiten duela zuloa. Etengabe aipatzen dute defizita herritarren probestu nahitik datorrela, baina azken 20 urteotako gaixotasun kronikoen emendatze horregatik ez balitz gizarte segurantzaren kontuak sano leudeke. Gaixoak fabrikatzen dituen gizartean bizi gara. Nire konferentzietan beti galdetzen dut ea zenbaterik ezagutzen duen bere inguruan bularreko minbizia duen emakumerik. Aldiro, %75ak altxatzen du besoa. Beraz, iraultza behar da, hitzaren zentzu osoan. Noiz arte ekoiztiko ditugu gaixoak? Noiz arte izango da tabakoa oihana estaltzen duen arbola? Zergatik tematzen gara ardurak individualizatzen minbizi gehienak ez badira tabakoak eraginak, kutsadura kimikoak baizik? Sistema oso lizundua dago, alta. Egunero pozoitzen gaituztenek saltzen dizkigute minbizi sendatzeko botikak. ■

Jaietarako bitarteko ekologikoak!

www.ecofestes.com
93.837.15.48

ECO-30 ECO-50 ECO-60 ECO-100

Bila ezazu Q marka, berme bat da.

• Nekazaritza-turismoak

- Hotelak
- Jatetxeak
- Kanpinak
- Landa-etxeak
- Bidaia-agentziak

**Q markak kalitatea ziurtatuko dizu.
Goza ezazu.**



CALIDAD TURISTICA



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MENDIAK/ITZA ETA TURISMOA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

euskaditurismoa.net



• Kilometroak 2011 •

Baratzea ikasgela bilakaturik

Haurrez beteta ikusi dugu aurtengo Kilometroak jaia antolatzeaz arduratu den Azpeitiko Ikasberri Ikastolako baratzea. Gerturatu garen egunean, gelako hazitegian eduki dituzten landare eta barazkiak landatzen ari dira. Ikasleak naturara hurbiltzea eta berau errespetatzen ikastea dute helburu.

ARAITZ MUGURUZA EIZAGIRRE



ESKU AHURRA mugurdiz beterik eskaini digu Leirek, eta ahoratzera gindoazela “lehenbizi garbitu!” oihu egin digu. Lezioa ongi ikasia dauka. 4 urte ditu, eta baratzean aurrera eta atzera ibiltzea asko gustatzen zaio, ikastolako ume gehienei bezalatsu. Gorka Vesga du hezitzaile, bera da baratzearen arduraduna. Argi dauka baratzeak haurren ikaste-prozesuetan eragin positiboa duela: “Baratzean parte hartzen dutelarik, ingurunea zaintzeko kontzientzia barneratzen dute”. Haur Hezkuntzako ikasleez gain, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteek ere laguntzen dute baratzearen osaketan.

Baratzea lantzen orain dela bederatzirte inguru hasi zirela gogoratu du Vesgak: “Orain arte baratzearen ardura zeramanak hasi zuen proiektua, DBH 4ko teknologiko





LETEA JATETXEA

☎ 943 812 887

Azpeitia-Tolosa bidea
Errezil (Gipuzkoa)





Kontxako olatuen gainean, bertako produktuenganako arreta bereziarekin

B R A N K A

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
☎ 943 317 096 · Faxe: 943 214 890
branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com



errekabike

Gustukoen duzun kirolarentzat
dena aurkituko duzu

Zubi Zahar, 4 - Citroën alboan -
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 811 638 · albizubike@hotmail.com
errekabike.com



ALBIZU ITURGINTZA

☎ 943 811 638
657 790 521
Zubi Zahar, 4 · Landeta auzoa
Azpeitia (Gipuzkoa)

- ♦ GAS INSTALAKUNTZAK
- ♦ BEROKUNTZA
- ♦ BAINUAK
- ♦ ERREFORMAK
- ♦ ...

ANOTA
SAGARDOTEGIA



Elosiaga auzoa
© 943 812 092 · Faxe: 943 813 444

KlikKlikKlik
euskarari
klik
komunikazioari
KlikKlikKlik
klik
EREKI.net
euskara eta komunikazioa

EREKI
goiko kalea 5, 3A
tel.: 943 08 06 88
20730 azpeitia (gipuzkoa)
e-posta: ereki@ereki.net
www.ereki.net



Juantxo
TABERNA



Ogitarteko eta pintxo
bero eta hotzetan espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

TXINGURA
TAILERRA, S.L.



ERAIKUNTZA METALIKOA ETA HERRERITZA
Egiburuberri industrialdea, 17 D
Erreterria (Gipuzkoa)
© 943 331 836 · Faxe: 943 552 388
sebas@txingura.com · www.txingura.com



klaseetan erabiltzeko. Ikastola Agenda 21 egitasmoan sartuta dagoenez, han lantzen diren gaiak baratzean ere jorratzeko erabili izan dira”. Egun, Urtxintxa eta Txanela ikastoletako ikas-materialak dituzte gainera, eta landu beharreko gaiei buruzko ariketak agertzen dira liburuetan. Horiek aitzakiatzat hartuta ikastola kanpora irteten dira baratzean teoria praktikara eramateko. “Adibidez, babarrun magikoaren ipuina irakurri ostean, babarrun bat landatzeko eskatzen duten ariketak egoten dira. Guk jarraibide gisa hartu, eta landatu egiten ditugu”. Horrela osatu zuten ortu barruan dagoen lorategia. Orain seigarren mailan daudenek ondo gogoan dute nola izan

Orriotako argazkietan,
Ikasberriko baratzea. Haur
Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako
eta Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzako haurrak aritzen dira.



zuten ikasgelan hazitegia: “Jogurt potoetan eduki genituen hasieran, pixka bat hazi bitartean, eta gero hemen landatu genituen”. Ariketa horiekin, landareen sailkapena eta ernalketa landu zituzten.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik laugarren mailakoak dira baratzerara joan-etorri gehien egiten dituztenak, natur zientziei eta teknologia gaiei lotutako alorrak jorratzeko. Oro har, mantentze lanetan aritzen direla argitu du Vesgak: “Belar txarrak kentzea edota uraren errailea aldatzea izaten da besteak beste haien lana”. Batxilergoa eskaintzen dute Ikasberri Ikastolan, baina hauek ez dute baratzean parte hartzen.

UZTARRI

JATETXEA

janari
tradizionala

© 943 148 321 · Aizarnazabal
www.uztarrijatetxea.com

Produktu kimikorik gabeko uztza

Ez dute produktu kimikorik erabiltzen. Lurra ongarrizko konposta botatzen dute, hau ere ikastolan bertan egina. Vesgak azaldu duenez, konpostak lurra “gozo” mantentzen du, eta horrela hurrei errazagoa zaie manipulatzeko. “Aitzurtu beharrik ez dago, eskuekin zulotxoak egin ditzakete eta han sartu hazia edo landarea”. Hurreratu garen egunean, baratzean dauden zuhaitzak udareondoa, gereziandoa, intxusak, kainaberak, eta sagarrondoak dira. Patatak, tomateak, tipulak, kalabatxoak eta babarrunak ere badituzte; eta horrez guztiaz gain, loreak daude. Dena lau zatitan eta mailatan banatuta dago. Haur Hezkuntzakoei partzela oso bat uzten diete Ikasberrikoek: “Gustura hasten dira ureztatzen baina bada-kizue nola diren haurrak, gutxi behar izaten dute jolasean aritzeko”.

Guztiak maite dute baratzean aurrera eta atzera ibiltzea, dela ureztatzen, dela landatzen. Seigarren mailakoek lan ugari egiten dute. Baratzeako arduradunak baieztatu digu: “Gogoa dut, Lehen Hezkuntzakoak beren tutoreekin loreak landatzera etorri ziren eguna. Lurra aitzurtzen hasi nintzen ni, eta berehala ikasleak galdezka hasi ziren beraiek zergatik ez ziren ari aitzurrean. Azkenean denek lagundu zuten.

Argi dago, beraiei gustatu egiten zaie, aulkitik altxa eta zerbait egiten egotea”. Laguntza eskaini zuten ikasleek eta auzolanean loratu zuten ortua. Horixe du, hain justu, helburuetako bat: elkarlana bultzatzea.

Badu beste kontakizunik Vesgak: ardiek baratzeako itxitura gaintitu zutenekoa. Baratzea izorratuko zietela-eta ikasleak “ardiak bidaltzeko eta bidaltzeko” eskatzen aritu zirela gogoan du. “Ikusten da zenbat eta gehiago parte hartu, orduan eta gehiago zaintzen dutela baratzea. Beraiena den zerbait da, hortaz, zaindu egiten dute”. Era horretan, zaborra bertan ez uzten eta ingurua txukun mantentzen saiatzen dira. Hori da lortu nahi duten beste balioetako bat: ingurunea zaintzea. “Kontzientziatu egiten dira nolabait. Ezagutu dezatela natura, fruituak eta barazkiak nondik datozen, baita nola landatzen diren. Ez dezatela pentsatu dena supermerkatuan dagoela”.

Gehienbat udaberrian lantzen dute lurra, eguraldiak orduan laguntzen duelako batik bat, baina baita ikas-materialak horrela bideratzen duelako. Neguko joan-etorri apurrak ikastolako helduenek egiten dituzte. Pasa den neguan ilarrak eta baratxuria sartu zituztela adierazi digute.

LAJA ERRETEGIA



☎ 943 851 195
Santa Krutz auzoa
Azkoitia
-Gipuzkoa-

Jatetxea - Restaurante

NICOLASA



*Txangurroa labean eta arraia plantxan
Eguneko menua eta bereziak*

☎ 943 515 469
Donibane, 59 · Pasai Donibane (Gipuzkoa)

MARITXU

JATETXEA

☎ 943 399 062 / 943 399224
Euskadi Etorbidea, 13 / Trintxerpe
Pasai San Pedro (Gipuzkoa)
www.restaurantemaritxu.com

- ▶ Era guztietako itsaskiak, etxeko haztegikoak
- ▶ Arraina plantxan eta labean
- ▶ Gomendatuak: itsaski parrillada, zapoa saltsan eta txerrikumea

/ Eguneko menua / Karta / Taldeentzako menu bereziak





Kilometroak 2011

Urriak 2



Gipuzkoako Foru Aldundia

Otamendi
Erloju eta bitxi denda



1916 ezkeraztik orduari urrea jarritzen

Goiko Kalea 4-Azpeitia
Tlf: 943 81 13 49

Intxausti
harategia · urdaitegia



Juan Martin Intxausti

Grupo La Salve, 33
Azpeitia (Gipuzkoa)
© 943 810 489 / 687 527 664

CARMONA
EHORZKETAK

Hileta zerbitzuak

Paulo VI, 7. behe
Azpeitia (Gipuzkoa)
© 943 151 514
funcarmona@euskalnet.net

Garai berriei klik!

Teknologizatuta dator aurtengo Kilometroak. Ordenagailuekin erabat lotua dagoen leloa aukeratu dute: *Klik!* Horrela “ikastolak, herri honek, euskarak aurrera egin behar duela” adierazi nahi izan dute antolatzaileek. Play ikurra hartu dute leloa indartzeko ikur gisa. Abestian ere hala diote: “Klik bat egin eta aurrera goaz”.

Baina klik hori ez da abestian bakarrik entzun, ezta Kilometroen aldeko publizitatean soilik ikusi. Ikasberri Ikastolakoek herritarrak bultzatu dituzte benetan klik egin dezaten. *Klikmetroak* egitasmoa jarri zuten abian, Kilometroak jaiaren osaketan jendeak parte har zezan. Roman Azkue Ikasberri Ikastolako koordinatzaileak eta Igor Elortza Kilometroetako koordinatzaileak azaldu digutenez, hasierako ikastolen aldeko jaiak antolatzeko erabiltzen zen funtzionamendua hartu dute abiapuntu, hori bai, gaurkotuta. Ibilbide birtuala osatu dute horretarako, eta jendeari metroak doan erosteko gonbita egin. “Diru kopuru jakin bat lortzeko babesleak bilatu ditugu. Aurten jendeari esfortzu minimo bat eskatu diogu. Jendeak metroak bere ize-nean jarri ditzala, eta hala ibilbide birtualean egindako metro bakoitzeko babesleak ordaindu egingo dute”. Lagundu nahi duenak formulario bat bete behar du eta argazki bat igo, gero parte-hartzailearen irudia babeslearen ondoan agertzeko. Twitter, Facebook, e-posta bidez edota klikmetroak.com webgunean egin daitezke metro birtualak.



Kilometroen hasierako edizioetan benetan egiten zituzten kilometroak eta kontrol guneetan zigilua jartzen zitzairen. Pertsona ezagunek egiten zituzten ibilaldiak, eta horiek egindako kilometroak ordaintzen zituzten babesleak. Azken urteetan ordea, ez da horrelakorik behar izan, ikastolen aldeko jai erraldoi bilakatu delako, eta babesleak ordaintzeko prest daudelako. Antolatzaileek ordea, hasierako filosofiari heldu nahi izan diote. Elortzaren esanetan, “berez Kilometroak zergatik eta zertarako egiten den adierazteko egin dugu hau. Uste dugu berezko esentzia erakutsi behar diogula jendeari, eta batez ere, gazteei”.

Ibilbide birtuala alde batera utzi eta errealtatezkoan ibiltzeko aukera izango da datorren igandean. Sei kilometro luzeko ibilbidea izango du aurtengo edizioak, Azpeitia osoa igaroko duena. Guztira lau gune nagusi izango ditu, eta bosgarren bat ere egongo da, herriko plaza hartuko duena.



MICROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazetara
Txangoak, bodak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa 13, OV lokala
Orereta - Errenteria
Tel: 943 008 579 - 656 704 021
www.erbibus.com / erbi@euskalnet.net




Ikasgelatik kanpoko jarduna izaten dute baratzera joatea, eta horregatik ere dute gogoko. “Gelan sartuta egon ordez, alde ederrean gaude hemen” esan digu ikasle batek; besteak gaineratu du “ingelesa ikasten egon baino nahiago hemen, behintzat zikindu egin gaitezke-eta”. Ikasleei lanerako, ikasteko eta laguntzeko gogoia pizten die baratzeak. Vesgak azaldu digunez, ebaluatzeko unean ikasleek agertutako “interesa eta motibazioa” hartzen dituzte kontuan, baina ez da hori garrantzitsuena: “Askoz ere garrantzi handiagoa du, gure ustez, ikasleek ongi pasa izana, elkarlanean aritzen ikasi izana eta horrelakoak”.

Udazken aldera, barazkiak eta fruituak biltzeko unea iristen da. Oro har, irakasleen artean banatzen dute, baina badago ikastolako letxuga probatu duen ikaslerik.

Datorren igandean, Kilometroak jaira Azpeitira gerturatzeko denak egin dezake bisitatxoa ikastolako baratzera. Txorimalo baten zaintzapean dago, ez dezatela txolarreek bertako uzta hondatu. Haur Hezkuntzako umeei dotore-dotore jantzi dute, egun handirako. ■

Udareondoa,
gereziandoa,
intxusak,
kainaberak,
sagarrondoa,
patatak, tomateak,
tipulak,
kalabazatxoak eta
babarrunak dituzte,
baita loreak ere.



**Santi Lazkano
kirolak**

Jose de Artetxe, 1
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 811 650 • F 943 080 379
santilazkano@euskalnet.net

*Ongi Etorri
Jatetxea*

☎ 943 150 869
Salbe Auzunea, 21
Azpeitia (Gipuzkoa)
ongietorrijatetxea@hotmail.com



Gonzalo Camarón
*bitxidenda
erlojudenda*

Kale Nagusia, 11
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 852 493
Faxa: 943 852 493



DTM Loigar

MEKANIKA TAILERRA ETA DENDA

Urola, 6 • Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 151 260 • Faxa: 943 157 376
dtmazpi@arrakis.es



ZESTOAKO
herriak ere

klike!



ZESTOAKO UDALA
www.zestoa.net

TTAKUN (H)ERRENKA

Munduari ezin lotuago

E

rrealitatearen eta fikzioaren artean harri-duraren amildegia dago. Amildegia sakona. Al Kaedak Ameri-

kako Estatu Batuen “bihotzari” eraso egin zion egunak amildegia bezalako harridura sakona sortu zuen mundu osokoak ginen telebista ikusleen artean, World Trade Centerren aurkako erasoaren irudi haiek zalan-tza izpirik gabe oso benetakoak zirela sinestu genuen arte. *¡Qué barbaridad Bagdad!* (B. Atxaga). Basakeria, bai. Izugarri. Baina arreta gehiagoz ibili behar-ko lukete egun hartako ekintzek mundua aldatu zutela behin eta berriz errepikatzen duten adituek, mundua baino zerbait gehiago aldatu izan delako beti, askatasu-naren eta demokraziaren izenean beste mila basakeria egin diren bakoitzean. Ez orain hamar urte bakarrik. Izan ere, oinarritzko giza eskubideen kontrako hondamendi prozesua ez da inoiz gelditu, ez 2001eko irailaren 11ren aurretik, ezta geroztik ere. Okerrago oraindik, inpresioa daukat babestea, errespetatzea eta defenditzea merezi duen oro lehenbailehen gaintik kentzeko gehiengo oso baten grina bizia dagoela. Sindikatuak, ekologistak, feministak, irakasleak, tabako erretzaileak, poetak edota alarde mistoaren aldeko lagunak, besteak beste, erradikaltzat hartzen ditu orain iritzi publikoak. Ez da hori paradoxa bakarra. Beldurraren aurkako mitoa handitzen doan heinean, eta mendealdeko gobernuek beren ideologiaren zakutoak gezurraren diskurtsoarekin puzten dituzten bitartean, bertsio ofizialaren benetako aurpegia birrintzen, degradatzen eta itsusten doa gupidarik gabe. Errealitatearen eta fikzioaren artean paradoxa dago. Paradoxa itzela. Eta erantzuki-

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

zunak eskatu ahal izateko, erru-sentimendua edota delitu-kontzientzia egon beharra dago, baina ez dut nik sekula halako ezer ikusi, eta uste dut ez dudala ikusiko, estatubatuar agintarien keinu texastarrean. Eta Benedikto XVI.aren eskari bitxietan ere ez. Errealitatearen eta fikzioaren artean

linboa dago. Linbo zabala. Erromako Aita Santua bakea eta askatasun erlijiosoa errespetatu behar direla eskatzen entzutea, Erromako Aita Santuari gizadiaren esperientzia moralaz hitz egiten entzutea bezain nardagarri egiten zait. Gero Madrilgo Munduko Gazteen Jardunaldietako gerizpean, komunitate kristauaren diskriminazioa eta presio laizista salatu zituzten bere aingerutxoek, M15 mugimenduko kideak deabrutzeraino. Etxe Zuriko ordezkarien antzera, Vatikanoko ordezkariak ere beren buruei inposatzen ez dietena inposatzen diete besteei. Errealitatearen eta fikzioaren artean pazientzia dago. Pazientzia galanta. Gaur egun, pazientzia da behar dena gure munduan. Pazientzia galanta, ordu puntetan errealitatea zeharkatu nahi bada. Eta hasi da ikasturte berria. Eta fikzio zaleak bere postuetan daude jada, mundu guztiari

errealitateari buruzko lezioak emateko prest. Errealitatearen eta fikzioaren artean haiez itxuratzen diguten presondetia dago. Presondetia neurrigabea. Inork ez die deus sumatzen, diskretuegiak dira bakoitzari dagokigun zigorgela banatzeko orduan. Erabakirik daude guztiak. Nirea ere bai. Eta hori guztia egia ez dela jakin dakidan arren, errealitatea eta fikzioa batere horrelakoak ez direla, inoiz ez dut ihes egin ahal izango. Inolaz ere. Errealitatearen eta fikzioaren artean hona hemen berriro ere mundua. ■



Errealitatearen eta fikzioaren artean
linboa dago. Linbo zabala. Erromako Aita
Santua bakea eta askatasun erlijiosoa
errespetatu behar direla eskatzen entzutea,
Erromako Aita Santuari gizadiaren
esperientzia moralaz hitz egiten entzutea
bezain nardagarri egiten zait



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Amatasuna eta lan baldintza duinak

Europan jaiotza-tasa jaitsi egin zela eta, ama langilearen lan-baldintzak aspaldi hasi ziren hobetzen. Eta lege aldetik esan liteke ama izan nahi duen langileak babes dezente dituela. Baina hori ez da beti hala gertatzen. Berezi, langilea kontratatzerakoan, baldin badakite emakumea haurdun dagoela nekez hartuko dute lanerako. Eta hainbat kasutan emakumea lanetik botatzeko aitzakia ere izan da haurdunaldia.

Emakume langilearen duintasuna zikintzen duten bi kasu aipatu nahi nituzke. Bata, irakaskuntza mundukoa eta bestea, lantegi batekoa. Ez dut zehaztasunik emango, inoren teitura harriak botatzeak ez baitu ezer konpontzen.

Lehenengo kasuan emakumea finegia izan da eta lanik gabe geratu da. Ikastetxe batetik deitu zioten ikasurte honetan ordezkapen bat egiteko, jakin gabe haurdun zegoela. Berak, kontzientziak hala aginduta, jakinarazi zien haurdun zegoela eta gaia aztertzeokotan geratu ziren nonbait. Laster jaso zuen deia esanez, sentitzen zutela, baina beste bati eskainiko ziotela lana.

Ulertzen dut eskolak bere planifikazioa egin beharko zuela eta hemendik zenbait



DANI BLANCO

hilabetera beste langile bat kontratatu behar izatea arazoa izango zela eskolarentzat. Baina non gelditzen da emakumearen lanerako eskubidea? Non amatasunaren duintasuna? Ala umerik ez da interesatzen, ama izan behar duenaren lanerako ahalmena eta disponibilitatea mugatzen dituelako?

Kasu honetan, beste jokabide bat ere eman zitekeen: lanera deitu dioten emakumeak ezer ez esatea eta lana onartzea. Modu horretan, lana izango zuen eta gerora konturatuko ziren haurdun zegoela. Desleial jokatu izana eta ikastetxeari bere planifikazioa garaiz prestatzeko ez abisatu izana leporatuko zizkieten orduan. Eskola horrek ez al du bultzatuko haurdun dagoen hurrengo emakumea horrela jokatzera?

Ondoko kasua guztiz bestelakoa da. Haur txiki bat izanik lanean ari zen emakume batek bere lanordua murriztea eskatu zuen eta lantegiak onartu egin zion lau orduko lanaldia. Geroago haurdun geratu eta zortzi orduko lanaldia eskatu zuen, kalkulatu amatasun baja etorritakoan hobe zela lau orduren ordez zortzi kobratzea. Baina ez zion inori esan haurdun zegoenik. Haurra galdu egin zuen eta haren asmoa eta jokoa agerian geratu ziren. ■

«
Non gelditzen da emakumearen lanerako eskubidea? Non amatasunaren duintasuna? Ala umerik ez da interesatzen, ama izan behar duenaren lanerako ahalmena eta disponibilitatea mugatzen dituelako?
»

TXANDAN

Juan Ramon Mankuso



eta bi muxu eman genion elkarri. Ezustekoa izan zen niretzat. Goizeko lehenengo orduetan izan zen. Hiria esnatzen ari den orduetan; jendea bere eguneroko eginkizunetan murgiltzen den unea. Ni ere horretan nenbilen, eta zu agertu zinen. Urte batzuk baziren elkar ikusi gabe igarotakoak; bizitzaren zirrikituak anitzak dira eta zuk eta baita nik ere, bakoitzak berea egina zuen. Norberak daki zergatik hartzen duen bide bat eta ez bestea. Agian ez da izango egokiena edo agian, norberaren hautua izanik, hori da hartu zenuena,

Besarkada

eta nik ere nirea hartu nuen. Baina hartutako bideak urruntzen gaitu, banantzen gaitu, gizakiaren arteko harremana hor geratzen da; gizakiok zilbor-heste moduko zerbait behar dugu gure artean, eta horretan, gurean, urrats asko eman behar dugu. Hauek guztiak bururatu zitzaizkidan zurekin egon eta gero. Agian kosta egiten zaigu iraganak uzten duen zama albo batera uztea, baina zuk, esan zenidan hitz apurretan, etorkizuna zenuela begi-bistan. Bai, aitortzen dut, bihotzean geratu zait hau guztia. Xamurtasunari arreta zor diogu. Besarkadak behar ditugu. ■

Pako Sodupe

IDAZLEA

Elebide eta EHU gaztelania sendotzen

Ikasturte oso bat igaro da alfer-alferrik. Iazko udazkenean salatu nuen Elebiden (Herriarren hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua, EAEn) Teseo fitxa gaztelaniaz bete behar izan nuela, eta hala jarraitzen du fitxa horrek. Tesia euskaraz egin, eta UPV/EHUK eskura jartzen duen fitxa, Madrilgo Consejo de Coordinación Universitaria delakoak Espainiako Estatuako unibertsitateetan egiten diren tesiak artxibatzeko, gaztelaniaz bete behar! Baina, lasai irakurle, ez dut luma hartu sumindurik sentitzen naizelako, ni naizen gizaki berezi honi jaramon ez egiteagatik. Aztertu dezagun kasua, esanguratsua baita.

Fitxak berak guri dagokigunerako bi atal ditu, bata, inprimakia bera, laburra, bi mila karaktere asko jota, eta hori baino garrantzitsuagoa, administrazioak berak eskaini behar dio inprimaki hori tesia burutu duenari; bada, hori itzultzea, itzultzaile ardurasu batentzat ordubete pasatxoko lana izan liteke, gehiago ez! Gero, bigarren atala, tesi-egileak tesia laburtu egin behar du, gaztelaniaz nahitaez (hortik aurrera euskaraz, ingelesez, mandarin txineraz... laburtu dezake!).

Teseo inprimakiaren espedienteak ezin argiroago agertzen du Espainiako Estatuaren izaera: batua,



DANI BLANCO

zentralizatua eta gaztelanian zurkaiztua. Eta hori bezain garbi, hori posible izan dadin, EHUK egiten duen elkarlana: unibertsitate autonomikoak zentroa zentroago bihurtzen laguntzen du, periferiakook zentroko hizkuntza erabiltzera behartuz.

Eta Elebide? Borondate onenarekin gutunak hara eta hona, batere eraginkortasunik gabe. Madrilera gutuna, iazko azaroran; Madriletik erantzuna: “Bai, egingo dugu (datarik gabe)”. Hitz onak egingizak labur! Gaur arte. Ez dute egin nahi, ez dute artxibo zentrolean azpiartxibo bat ireki nahi euskarazko tesi-laburpenak gordetzeko. Norbaitek gainbegiratu beharko lituzke! Gastu murrizketaren eta unibertsitate espainiarraren batasunaren amoretan!

BBCnews-en irudiak agertzen dira ba, iruzkinik gabe; irudika Teseo inprimakia, nire salaketa, UPVren erantzuna –hori Madriletik dator, eta normala da gaztelaniaz izatea; hori ez da inposizioa–; eta Elebideren gutun-truke debaldekoa. Iruzkina zuk jarri, irakurle!

Europako estatu deszentralizatuenean bizi omen gara; EHUK unibertsitate zentrala zuritzen du, eta itxurakeriaren apoteosi honetan, erramua jartzen duena Elebide da, teoriarik gure eskubideak defendatzeko, praktikan, itxurakeria hutsa. ■

« Europako estatu

deszentralizatuenean bizi omen
gara; EHUK unibertsitate zentrala
zuritzen du, eta itxurakeriaren
apoteosi honetan, erramua
jartzen duena Elebide da

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



oker “gu iristerako diruak ahituko dituk” esan zuena, eurotan Kortak maldiziotan baino dezente gutxiago hartzen zuen hark. Berrogei urtetik gorako kotizazioa izan, eta hala ere, garaiko nagusi batek baino gehiagok esandakoa jan eta urte batzuk kotizatzeke zituen, erretreta hartu zuen arte jakin ez zuelarik. Ezin zuen sinetsi lana egin gabe kobratuko zuenik, eta hila-betero txintxo-txintxo bere kuxako kartila berdintzen zutela ikusirik, harriduraz bizitzen zuen pagotxa. Harritzen zuena noski, ez kobratzearen beldurra zuen. Hogeia bat urtez iraun zion egoerak, mundua utzi zuen

Ez zebilen

arte. Eta garai hartan, bere egoera normalizat eta irabazitako eskubidetzat zuten seme-alabek, orain bizi dute haren harridurarik gabeko beldurra. Zeren eta guardia zibilek Oñatin manifestazioa egitea bezain beldurgarria gauza gutxi mundu honetan. Eta Greziakoa ezagututa, are beldurgarriagoa letorkiekena, urtetan ezinbestean jarritako sosez elikatutako uniformedunenak ordaindu, eta gainera, haien errukia jasan behar izatea. Beren diruak ahitzen ari omen dira eta zer esanik ez beren seme-alabenak, orain errondak ordaintzen ari direnak. Ez zebilen oker bi gerra ezagutu zituen hark, bukaerako bere xumean suerte onekoa izan zena. ■

BERTSO BERRIAK

Joanes Etxebarria

Iragarkiz jarriak



I

Libération egunkariaren
14garren orrian,
iragarkietan ligatzen da
manera erringarrian.

V

Berrian ez da hala egiten,
ez *Garan*, ez besteetan.
Arren, ARGIAN egin nahi düt
berdintsü ene kopletan:

II

Oto salmenta ta lan eskeintza...
iragarkien artean,
harreman ezinezkoen txerka
dabiltza hitzen katean.

VI

«Zure herriko gaztetxean zen,
laugarren garagardoan;
ene bürüari erran neion,
ikusak hortik nor doan...

III

«Parisen, metroan 10 linean,
goizeko 10 t'erditan,
ikusi züntüdanetik a(r)i niz
desioaz izerditan».

VII

Ez dakit zure izena, bena
deitü nahi zütüt sorgin;
begirada hartarik geroztik
sentitzen niz hain ezberdin!»

IV

Beste batek ere hala zion:
«Monmartre gainean zinen,
geroztik hasi niz ametsetan
aihari bat dügün eginen».

VIII

Ürrentzeko lüzatü nahi düt
proposamen bat emeki,
iragarkien publikatzeko,
bai, bena anonimoki.

DOINUA: Aita semeak tabernan daude.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Zinema *Xora:* sortzeko beldurrik gabe

Xora filmaren grabazioa ikuskatzeko menturatu gara Zuberoarat. Hebertik elkartearen “Jinkoak sortu dütüt... eta desegin” goiburuari jarraiki diogu eta “Xiberoa zinez... eta auzolanez” lema lurtarra geure egin. Mixel Etxekoparek hornitutako Peio Cachenaute-en espiritu artistikotik edan dugu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Hebertik

MAULEKO PLAZAn gaude, Café des Allées Dédé ostatuan. Egun erdia joana da. Ekia da nagusi kanpoan; ostatuan aldiz, Peio Cachenaute, *Xora* filmaren arima eta zuzendaria. Berarekin filmatzen ari den taldea —hamabost lagun inguru— ia osoa dago. Tittika Rekalt eskas da, aktore nagusietako bat. Rekalt bertuko kaiolarrean omen dago, Hollywood izeneko pertsonaiarekin. Filmazioak hamazazpigarren eguna bete du jadaneke.

Aktoreak eta figuranteak beren lekuetan daude. “Akzioa!” erran du ozen zuzendariak. Eszenan gaude: “X (hala izena du Jeff Goi-

nexpek jokatzen duen pertsonaiak) ostatuko kontuarrean berrmatuta dago, soa galdurik. Nerea (Xantiana Rekalt) neska-laguna hurbildu zaio kanpotik ezustean. Beltzeko-gizon misteriotsua eszenatokian dabil harat-honat”.

Kanpoko argia eta ostatuko iluna eszenaren aurkia eta binperra dira, *Xoraren* arimaren distira: “Filmatzeko ordua heldu da, enetzat baina, filmatzeko garrantzizkoena aitzin-prestaketa da. Erabili nahi dugun ‘lengoaia’ barneratu dugu aitzinetik, baina orain, zinez, zehatz-mehatz jakin gabe ari gara” erran digu filmaren zuzendariak akzioan

Taldea, *Xora* filmeko eszena bat grabatzen. Peio Cachenaute bigarrena da, makurtuta, eskuinetik.



sartu aitzin. Filmatzea esperimentatzea da Cachenautezat. Hona *Xoran* bere esperimentzia: “Aitzinetik irudikatu ditugun urratsak eginbidean berri behar ditugu. Gure asmoak errealak –egingarriak– ote direnents ohartzea da gogorra. Zinez, jakin ez baitakigu egin nahi dugun horretara iritsiko garentz”. Eguraldiak, eszenatokien aldaketek, aldian aldiko ustekabeek eta zalantzek filmaren kontzepzioa ukitu dezakete eta kontzesioak egitera behartu. Amore emate horren kezka abiatu zen filmazioa: “Alta, taldearen gogoa norberaren trebezia piztu du eta kontzesio gutxi egin dugu” diosku Cachenautek. Konfiantza osoa du taldean: “Tentsio uneak bizitzera behartuta gaude, baina tentsio puntu bat nahitaezkoa da”. Uztailko eguraldi kaskarrak tenkatu zuen giroa. Filmatzen hasi eta bi gau hutsean joan ziren euri burrustaren erdian: “Joanaren (Zuzendari laguntzailea Joana Asurmendi) lan handiari esker ez dugu filmaketaren erritmoa galdu, gutxieneko sekuentziak gauzatzeko moldatu ginen”.

Idaztea gauza pertsonala da, bakartasunean egin ohi da. Zinema berriz, talde-lana da: “Ni taldeko utopista naiz. Utopiak ezinezkoa gauzatzen laguntzen du. Aulne Carite (Argazki zuzendaria) optimista da. Larrialdien alde baikorra ikusten duena. Joana, prerealista da. Guztiok guztiz errealistak izanez gero, nekez iritsiko gara aurreikusia errealtzera”. Peioren aburuz, hiru izaerak beharrezkoak dira taldea emankorra izan dadin. Dédé ostatuan filmatzen ari den sekuentzia enegarren aldiz errepikatu dute: “*Xoran* hamasei alditan dago errekorra. Zinemagile profesionalen errekorra ehun sekuentziatan goiti omen da. Lasai, beraz” entzun diogu Mixel Etxekoparri.

Transmisioaren minbera

Etxekoparrek –Hebentik elkartearen ordezkariak– horrela agertu digu filma: “Bi protagonistetako bat euskaldun berria da, bestea zaharra. Euskararen transmisioaz mintzo da *Xora*, baina ez horretaz soilik. Kulturaren eta bizimoldearen transmisioaz ari da, norbanakoen burujabetasuna eta bizi-esperimentzia kontatzen ditu”. *Xoran* maisuaren eta irakaslearen arteko harremana dago, literatura gaiaren haria izaki. Bi protagonisten burujabetasuna ari da auzitan: “Zer ikasten den eta zer irakasten den. Nola erakusten da, hots? ‘Zer

bezain garrantzizkoa baita ‘nola’”. Lehen film zuberotarra denez gero, honen jite exotikoa iradoki diogu: “Ez da espantu egin behar. Filmak ez du deus berezirik ekarriko. Agian, gure erraetan dugun mina are gordinago islatuko du. Artelana ez da sortzen minik gabe, sortzea erditzea da. Artearen funtzioa hori da”. Transmisioa gai minbera da Euskal

Herrian, eta zer erranik ez Zuberorain. Zuberotarren sabelean mina dago, familia gehienetan euskararen transmisioa eten baita.

Mauletik Heletara

Mauleko plazatik Heletako plazara abiatu gara arrastirian; Dédé ostaturtik Trahouls antzerki konpainiaren lokalera. Maddi eta Xelin Oihenart *Xoran* ikusiko ditugu, *Argizagi ederra* kantuaren emaleak.

Oihernatarrak filmatzera goaz. Joanaldia profintatu dugu anartean, *Xoraren* nondik norakoak entelegatzeko.

Xoraren zuzendariaren pasioa literatura da, zinemaren gainetik izan ere. William S. Burroughs idazleak berebiziko eragina izan du Peio Cachenauteengan. Burroughsen *Naked Lunch* (Bazkari biluzia) nobela esperimentalak markatu zuen gaztetan. Iniziazioiko –eta bideko– nobela da zinegile zuberotarrrendako. Allen Ginsberg poetaren laguna izan zen Burroughs. Jack Kerouac zinegilearen hurbilekoak biak. Kerouac *On the Roaden* (bidean goaz gu ere) egilea da. Sortzaile horiek dira Peioren arimaren elikatzaileak, esperimentazioaren ereduak, *Collage* teknikaren aitzindariak, *Beat Generation*eko garaikideak. Horiek eta beste asko. David Lynch, esaterako.

Zuzendari zuberotarraren bidaidea naiz. “Ametsen bidean” goaz. Amets, sekretu eta misterioen isla da David Lynch. Alderdi horiek xerkatu eta arakatu nahi ditu ere Cachenautek. Berak idazteko daukan frustrazioa dago *Xoraren* baitan: “Idaztea ezinezko zeregina da enetzat. Idazteak sinple irudi du, baina biziki konplikatu da”. Idaztea zeregin duinena da zineman hasi berri den egile honentzat. Asko irakurri du, literaturaz nahiz zinemaz. Zinema fantastikoaren, poliziakoaaren eta beldurrezkoaren bidez iritsi da zinemara. Banda animatuek eta nobelek ekarri dute zinemaz interesatzera. Bere irudimena gazte garaiko irakurketei zor dio. Autore zinema du gogoko: “Horiek praktikara pasatzea besterik da ordea”. Ikasketa zientifikoak (Biokimika) egin ditu alta, ez letretakoak.



Tittika Rekaltek Hollywood pertsonaiaren rola jokatzeko du (Eskuinean). Jeff Goinexpe X pertsonaia da. Argazkian, bi aktoreak bortuko kaiolarrean.

Hezkuntzako kontseilari nagusia da Mauleko Nekazal Lizeoan. Maule da bere hiria eta inguru naturala. Nerabezaroa eta gaztaroa bertan eta inguruan –Muskildin eta Urdiñabarnen– eman zituen. Dantzari izana da. Pastorealean eta Maskaradan arizalea. *Xora* egiteko eman duen urratsa ezingo luke Zuberotik at eman. Ez Baionan ez Donostian ere, konparazione.

32 urte ditu, ama Barkoxekoa eta aita Lapurdiko Itsasukoa. Eus-kara galdu zuen. Gurasoen hizkun-tza mintzatzeko herabe da, kiskun-kaskun mintzo da, hanka sartzeko beldur: “Aita-amak euskaraz egiten zidaten eta nik frantsesez erantzuten nien. Ez dut ahalegin nahikoa egin euskara atxikitzeko. Tristeia da erratea, baina frantsesaz maitemindu nintzen”. Frantses eta literatur lengoaiari erabat emana da: “Pentsamendua hizkuntza batean garatzen baduzu, aldentuz zoaz ahulago duzun beste hizkuntzatik. Domaia duzu”.

Fikziora itzuli gara, *Xoraren* mundura. “*Xora* bertigoia da, baita lilura ere”. Peiok eromena eta zoramena bizi ditu egun haue-
tan. Ez da ziur parioa –eta zoria– irabaz-
izanaz: “Ez gara espezialistak, baina gutxie-
nekoak betetzen ditugu. Nik egin nahi
dudanaren ideia orokorra nuen, baita nola
lortu nahi nuen ere. Pertsonaiak jokatz-
en dituzten aktoreen ekarpena neure egin dut.
Alegia, ez naiz bakarrik ari”. Rekalteren
pertsonaia (Hollywood) buruan zeukan
gidoia idatzi aitzin: “Ez nuen beste nehor
bere rolean ikusten, baitezpadakoa da. Fil-
matzean alimalea da, diamante purua. Jeff
(X pertsonaia) konplikatuagoa da. Holly-
wood beroa da, X hotza”. X da filmean
gehien agertzen dena, eta ez zeukan espe-
rientziarik, ezta antzerkian ere. Tittika pas-
toralak idatzitakoa eta jokatutakoa da: “Jef-
fen lana esperientzia hutsa da, baina biziki

ongi ezagutzen dut, nerabe garaitik. Adimen sobera dauka eskatzen diodana egiteko". *Xoran* ez dago testu asko. Irudiak hitz egitea nahi du zuzendariak. Musika gailentzea ez du maite ere: "Irudiekin nahi dut transmititu, pertsonen keinuekin. Musika-rik gabe ere, nahi nuke jendeak ulertzea zer transmititu nahi dugun".

Autoaren gidari eta Peiori adi
noa. Charles Chaplin eta Buster
Keaton aktoreak imajinatu ditut
bere hitzetan. Rekalt Charlot da,
Goienexpe, berriz, Keaton:
“Zinemari gerta dakiokkeen txarre-
na teatro filmatua egitea da. Zine-
maren historian elkarriketakak
sartu ahala irudia galbidean sartu
zenu, baita aktoreen interpretazioa
ere. Chaplinek trantsizio hura
gainditu zuen, Keatonek ez. Kea-
tonek ez zuen harrez gero deus
egin zineman”.

Peio Cachenautek honela definitu du bere opera prima: “Sortzea trabatzen gaituenaz mintzo da *Xora*. Izugarritzko beldurra diogu gure aurreko sortzaileen mailan ez egoteari, haien neurria ez emateari. Ene uste apalean, ez dugu beldurrik izan behar sortzeko, ematen dugun heinarekin bizitzen ikasi behar dugu. Gure neurriko etikaren eta moralaren arabera sortu behar dugu”.

“Ametsen bidean” segitu du auto-gidariak, David Lynch-en *Mulholland Drive* filmaren peskizan eta *Xoraren* amets, sekretu eta misterioen xerka. Oihenartarrak, ama eta alaba, ikus-entzun ditugu filmatzen Heletan; *Argizagi ederra* kantari: “Argizagi ederra, argi egidazü. Oraino bide luzean joan beharra nuzu. Gau honetan nahi nuke, maitea kausitu. Haren bortaraino argi egidazu”.

Xoraren Script Suzanne Tatte-n ohar bat bildu du gidari honek finitzeko: “Zinema erantzun bat bilatzen duen zeregin andana da, erantzuna zinema bera da”. ■

**“Sortzea trabatzen gaituenaz
mintzo da *Xora*. Izugarritzko
beldurra diogu gure aurreko
sortzaileen mailan ez
egoteari, haien neurria ez
emateari”**

PEIO CACHENAUT, ZUZENDARIA

2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa



G.PUNTUA

www.gpuntua.com

G-PUNTUA: GIPUZKOAKO BERTSO SAREA



BERTSO-SAREAK:

- Finaia
- Finalen lehenak
- Finalen bigarrenak
- Finalen hirugarrenak
- 1. Fasea
- Bertso Eskolak
- Go eta heriotza
- Nahastetako sarea

QR kodea



**gipuzkoako
bertsozale
elkartea**

Liburuak

KRITIKA

Euskal gatazkak

Hemeroteka

Aritz Galarraga

Jose Luis Otamendi entzun eta poeta erantzun, egingo luke lehiakideak. Saria eskuratzeko gainera, besteren gainetik genero lirikoa landu baitu Otamendik. Bilduma gogoangarriak idatzi ere, *Lur bat zure minari*, adibidez, azkena bera, *Erlojuen mekanika*. Ez alferrik, hala definitu zuen Xabier Mendi-guren editoreak aldizkari honetantxe: herri-saminaren poeta fina. Bego.

Baina, ekoizpen poetikoen artean, 1999an egin zuen narraziogintzan sartu-irtena, eta ipuin liburu bat badu geroztik, *Euri kontuak*. Tira, orain baten batek oroitaraziko dit poesia eta ipuina ez daudela hain urrun, Sergi Pamiesek dioenaren haritik, argumentaziorako baino sentsazioetarako, emozioetarako ere ematen duela ipuinak. Hemen bada horren adibide garbirik, *Biaoa* esaterako, laguntasunaz, heriotzaz, maitasunaz nola dabilen, ekonomiko, iradokitzaile, poema batean bezala kasik.

Ezen horiek dira bildumaren ezaugarri nagusietako bi, narrazioak bai baitira laburrak, kolpe batekoak, gantzik ez dute, ez soberakinik, neurtuak dira tamainan, neurtuak baliabideen erabileran, hizkuntzan, hizkera maisu-maitasunez darabilte uneoro. Beste ezaugarri nagusi bat gatazkaren presentzia litzateke, gatazka modu orokorrean ulertua, sozialak, ekonomikoak, politikoak dute lekua hemen, euskal gatazka deiturikoak, egungoak, atzeragokoak ere bai, 36kora joaten baita ipuin batean baino gehiagotan. Ez da, haatik, geure zerari buruzko

kontakizun bilduma bat, ez bederen zentzu her-tsian. Aitzakia baino testuingurua ematen dio idaz-leari, nola esan, jaisteko plano pertsonalera, morale-ra, giza-emeak erretratatzeko beren minean. *Hagina* antologatuak, kasurako, gatazka politikoa du atzean, biolentzia politikoa nahiago bada, baina era berean ari da haur izateari utzi dion haur batez, arrebarekin, aitarekin, lagunarekin dituenez, han eta hemen antzera diren kontuek. Bada esportatzeko nagusiki euskal gatazkaren gaia dugula defendatzen duenik. Eta, segur aski, arrazoirik ez zaio falta. Baina geure buruei ere zor diegu geure gai labainari, geure gai labainei buruz hitz egiten duten ipuinak idaztea, ipuin finean unibertsalak, Otamendik *Euri kontuak* honetan egin legetxe.

Elkarriketa batean irakurri nion behin poesian jarduten zuela erosoan. Narraziogintzara jauzi txikia egin duenean, ordea, airoso aritu da oso. Eta eskuarte-zer duen jakin gabe, errepikatzeko modukoa iruditu zait esperientzia narratibo hau. Lehen bezala orain, herri-saminaren poeta finak behar baititugu behar, baita prosan ere. ■

Euri kontuak.
Jose Luis Otamendi.
Susa.
1999.
168 orrialde.
10,82 euro.



Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Itxaropenaren ertzean.
Jare.
Oihuka.
Iraupena: 38'22".
10 euro.

Mainstreamera hurbilketa askea

IDI BIHOTZ eta Flyin'Freak talde heavy-etako sortzaile Mikel eta Gorka Bizar errepidean daude berriro, Jare proiektu berri eta desberdinarekin. "Libre" esan nahi du taldearen izenak; libre eta gogoz datoz, eta esanguratsua da disko hau aspaldian ia lozorroan dagoen Elkarren Oihuka azpizigilu rockeroak kaleratu izana. Jareko taldekideek egiten duten musikarentzat etiketarik aukeratzekotan, AOR modernoaren alde egiten dute; eta nik hard-rock itsasorraren eta

pop-rockaren arteko ingurunean kokatuko nituzke, nahiz eta tarteka mainstream-eko pop-rockera, heavyra, punk-popera edo Governorsen melodia eta indar orekara ere hurbiltzen diren, pasarte akustiko zein orkestralak ahaztu gabe. Gatibuko Alex Sarduk eta OT-ko Ainhoa Cantalapiedrak ere lanean parte hartu dute; eta Iñigo Egiluz eta Xabier Lete omendu nahi izan dituzte.

www.jarerock.com

Mikel Bizar - Jare

«Ez ditut ikusten gure buruak popa egiten, baina nork daki»

"Egunsentiak erailtzen du unea". Ametsetan ez dago bizitzari aurre egin beharrik?

Oso gogorra eta zaila izan arren, beti borrokatu behar dugu nahi dugunaren alde, izan gure ildoak, izan musika, izan lanbidea. Ekin eta ekin lortzen dira gauzak; lagun batzuek behin esan zuten bizi ala iraun, zurea dela erabakia...

Nori buruz ari da Izarra? Izan ginen iraultzaileez?

Oso kanta berezia da, hitzak gure lagunek idatzi zituzten. Iñigo Egiluz lagun eta kooperante euskaldunaren omenez dago egina. Kolonbian erail zuten orain dela 12 urte eta Idi Bihotzekin ere kanta bat egin genion bere garaian. Melodia egin ostean, lagunei eskatu genien Iñigoz gogoratzen zuten zerbait, esaldi bat, hitz bat bidaltzeko eta denon artean letra egin genuen. Izugarria izan zen!



"Gorputz zahar baten bihotz gazte". Luzaroan ikusten duzue zuen burua rocka egiten?

Ni futbolaria nintzen eta orain berriro hasi naiz lagunekin futbole: burua oso azkar doa, jokaldia ikusten dut berehala baina orkatilak ez doaz hain azkar. Bizitzan gauza bera gertatzen da, umea edo gaztea

beti izango dugu barruan. Musikari dagokionez, gorputzak eskatzen diguna emango diogu, ez ditut ikusten gure buruak popa egiten, baina nork daki...

Talde berri honetan ahots erregistro oso desberdinak landu dituzue...

Hasieran kantatzeko zerbait erraza nahi nuen, Idi Bihotzen garaian ahotsarekin asko sufritu nuelako. Orain ez dut hainbeste oihukatzen, baina distortsioaren soinekoa ez dudanez, interpretatu egin behar dut kanta guztietan.

Ilargi berria, Itzala naiz... Gauzak desberdin ikusten dira orain?

Bai noski, esperientzia handiagoa dugu, dagoeneko ez gara 20 urteko gazte ameslari haiek. Horrez gain, bizitza oso azkar doala konturatu gara. Eskerrak taldekide gazteagoak ditugun... ■

Ezpalak

JON TORNER

Esan Ozenkik modu digitalean zabalduko du bere katalogoa



ESAN OZENKIK, 1991n Negu Gorriak taldearen gerizpean sortu eta 2001ean desagertu zen diskoe-txeak –Metak zigiluak eman zion segida–, bere katalogoa berritu eta lehenbiziko aldiz

modu digitalean banatuko du. Bizpahiru astez Spotify (www.spotify.com) zerbitzuak soilik zabaldu ahal izango du katalogoa, eta ondoren zabalduko da beste 23 ataritarara. Negu Gorriak, Deabruak Teilatuetan, Ama Say, Lin Ton Taun, Anari, Dut... talde ezagun ugari jaso zituen Esan Ozenkik hamar urtean.

Abian da Zineuskadi, EAEko udal aretoen sarea

“EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREAREN garapen estrategikoa” helburu, Zineuskadi izeneko EAEko udal zinema aretoen sarea abiatu dute Eusko Jaurlaritzak, Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE) eta Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak (Ibaia). Mikel Toral eta Veronica Sanchezen zuzendaritzapean, oraingoz zortzi dira parte hartzen duten udalak: Tolosa, Ordizia, Arrasate, Andoain, Leioa, Barakaldo, Elorrio eta Zornotza. Europa Cinemas sare europarraren baitan dago Zineuskadi, eta hainbat ekimen bultzatu nahi ditu, tartean euskarazko zinema eskaintzea, zikloak antolatzeta, Kimuak programako film laburrak ematea eta dokumentalak bultzatzea.

Goiatz Labandibarrek irabazi du Igartza Saria, hamaika ipuinek osatutako *Interrail* proiektuagatik. 6.000 euroko beka jasoko du Oiartzungo kazetariak, eta liburua Elkar argitaletxeak plazaratuko du. Europako hainbat hiriburutan geldialdia egin eta errealtetik oso gertu dauden istorioak idatziko ditu Labandibarrek. Orain arte lauzpabost istorio bukatu ditu eta urte guztia dauka gainerakoak idatziz eta liburua Beasaingo Udalean aurkezteko. Lehiaketaren epaimahaia Karmele Jaio, Igor Estankona eta Xabier Etxeberriak osatu dute.

Ertza konpainiak *Act of God* obra estreinatu zuen pasa den astean Donostian. Asier Zabaletaren zuzendaritzapean, Noemi Viana, Lorentxa Iturralde eta Eneko Gil dira dantzari eta protagonistak. Lan

horretako elkarrizketak ehunetarako orduan Harkaitz Cano, Ander Lipus eta Xabi Erkiziaren laguntza izan du Zabaletak. Erlijioari buruzko galderak ironia ukitu batekin plazaratzea da Ertza konpainiaren xedea. Hilaren 24an, *Act of God*-en kaleko bertsioa eskainiko du Ertzak Baionan, Dantza Hirian Jaialdiaren baitan.



XABIER ESKISABEL

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (EOS) antolatutako *Matinée* zikloaren 20. edizioak hamasei emanaldi jasoko ditu, hilaren 24tik datorren urteko ekainera bitartean. Iñigo Alberdi EOSeko zuzendari nagusiak egitarauak askotariko kontzertuak bilduko dituela nabarmendu zuen Donostian egindako aurkezpenean. Ganbera taldeek, Euskadiko Orkestraren zein BOSeko musikari-taldeek, Andra Mari Abesbatzak edo Gonzalo Tejada eta Iñaki Salvador bezalako musikariek parte hartuko dute aurtengo edizioan.

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Zabalgune Plaza, 5
48009 Bilbao
☎ 94 423 1500
Faxa: 94 424 3947
eudel@eudel.net

www.eudel.net

Abarak

Zinemaldia 2011

SAIL OFIZIALA

GORKA BEREZIARTUA

Erradiazio arriskurik ez, momentuz



Beldurra, panikoa eta terrorea ematen zuen Sail Ofizialak iazkoa zer izan zen oroitze hutsarekin; ez baitzen ia ezer egon salbagarri eta film batzuen aurrean denbora gehiegi egonez gero, Geiger kontadorea iratzargailua bezala hasten zen. Ba, aurten aurreneko asteburuak eman duena ikusita, saila itxurosoagoa izango dela ematen du. Bai, badaude onartutakoa baino milisievert gehiago irenstarazten dizkizuten filmak, Kim Ki-duken *Amen* esaterako, baina behintzat ez da aretorik hustu behar izan alarma nuklearra piztu delako.

Korrekzioaren mailan ibili dira Terence Davies *The deep blue sea*-rekin eta Juan Carlos Fresnadillo *Intruder*-ekin. Enrique Urbizuk ondo harilkatutako film beltza ekarri du: *No habrá paz para los malvados*. Gusturago ikusiko genukeen, halere,



Take this waltz filmeko protagonistak.

José Coronadoren ordezkari beste edonor izan balitz protagonista. Azpimarratzekoa, lehiaketatik kanpo egon arren, Asier Altunaren *Bertsolari* ere, bat-bateko bertsoaren mundua metafora iradokitzailez pantailaratzea lortu baitu —nahiz eta dokumentaleko zenbait eduki eta diskurtso topiko samarrak gertatzen ahal zaizkien ikusle batzuei—.

Guztietan gehien konbentzitu nauena, Sarah Polleyren *Take this waltz*: Ezkondu-tako emakume gazteak bizilagunarekin maitemindu eta senarra uzteko prozesua modu komiko eta era berean tristean kontatzea lortu du, *indiez* jantzita. Erromantikoak izango gara agian, baina erradiazio altuko garai hauetan ondo kontatutako maitasun istorioek zerbait ukitzen digute. Are gehiago soinu bandan Leonard Cohen badago. Ai. Ai, ai, ai.

ZABALTEGI

MIKEL GARCIA

Psikologo bat, mesedez



Ezezagunen bizitzak izorratzea gozagarri duen bikote heldu manipulatzailerak (*Silver tongues*). Kontrolik gabeko sexu basatiaren bidez barne-frustrazioak askatu nahi dituen yuppie estatubatuarra (*Shame*). Sekta baten menpe nortasunik gabe amaitzen duen neska gaztea (*Martha Marcy May Marlene*). Amabirjinarekin elkarriketa faltsua duen emakume libanoarra (*Et maintenant on va où?*). Gisa horretako istorio eta pertsonaia bitxiekin indartsu hasi da Zabaltegi. Eta, dena esate aldera, baita ero xamar ere.

Lehenengo egunetako hainbat pelikula ikusita, badirudi psikologotan dirua xahutu beharrean pelikula bat egitea otu zaiela zuzendariei. Esango nuke, barruan borborka dituzten buruhauste, gogoeta, fobia eta konplexuak pantaila handira bideratu dituztela. Baina fobiaz eta konplexuz



Silver tongues filmeko manipulatzailer profesionalak.

betetako gizaki bereziak dira zinegileak, ala gainerakoak ere ez gara uste dugun bezain arruntak? Hots, arakutzen hasiz gero, barnealdean atzamarka, ez al genduzte baieztautako konplexuak gurea gu geu ere?


Zabaltegiako pelikulek erakutsi digutenez behintzat, korapilatsuak, oso korapilatsuak dira giza harremanak eta zalantzaz, beldurrez, sekretuz, gezurrez, desirez betetako pertsonak gara. Horretaz guztiaz mintzo dira filmak; erlijioaren eragina eta boterea, senideen arteko hartu-eman gorabeheratsuak, ezberdinarenganako gorroto zentzugabea, zahartzaroaren gainbehera jorratu dituzte, besteak beste, *The tree of life*, *Nader and Simin, a separation* edota *Arrugas* pelikulek. Bizitzaren konplexutasunaz hausnartzeko lan aproposak izaten ari dira aurtengo Zabaltegiakoak, psikologotarako sosis ez duenarentzat.

www.argia.com/zinemaldia-2011 helbidean, aurtengo Zinemaldiko pelikulen kritikak ikusgai.

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Azterketak

Unibertsitateko lehen ikasturteko azterketa guztiak suspenditu eta gero, honako mezu hau bidali zion ekainean tolosar gazte batek bere amari:


– Ama. Denak suspenditu ditut. Sentitzen dut. Presta ezazu aita.

Biharamunean amaren mezua jaso zuen gazteak:

– Aita prestatuta. Orain presta zaitez zu!



Soluzioa



XABIER LETE GOGOAN

IRUÑEA

Eñaut Elorrieta (KEN ZAZPI)
ERRAMUN MARTIKORENA
ANTTON VALVERDE
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA

PETTI

Poeta: HEDOI ETXARTE

Bertsolaria: AMETS ARZALLUS

Aurkezlea: NOEL ELORGA

Irailaren 23an
Gayarre Antzokian
20:00tan

Sarrerak salgai:

Gayarre Antzokia (www.teatrogayarre.com)
Karrikiri denda

Babesle Nagusia



euskalerri.irratia

BAIONA

Eñaut Elorrieta (KEN ZAZPI)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
ANJE DUHALDE

PETTI

Bertsolaria: AMETS ARZALLUS

Aurkezlea: PANTXIKA MAITIA

Irailaren 24an
Baionako antzokian
20:30etan

Sarrerak salgai:

www.kutxa.net (943 00 12 00), Elkar (Baiona),
Kalaka (Garazi), Xaia (Pausu), Gure irratia (Uztartze)

Babesle Nagusia



Babeslea: **30** **gure**
gure irratia



anza
komunikazio grafikoa



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Marrazki bizidunen eragina umeengan

VIRGINIAKO UNIBERTSITATEKO (AEB) Angeline Lillard eta Jennifer Peterson ikerlariak oso saiakera bitxia egin dute 4 urteko hamasei haurrekin: marrazki bizidunetako bi film ikusarazi diete; batean irudiak eta eszenak azkar igarotzen dira, eta bestean polikiago. Lehenbizikoa, hain zuzen, Bob Belakia pertsonaia-ren film bat izan da, eta bigarrena Caillourena.



Pediatrics aldizkarian argitaratu dituzten emaitzen arabera, umeen portaera arras aldatu da film bat ala bestea ikusi. Caillou ikusi ondoren, umeen kontzentrazioa eta arretarako ahalmena ez dira aldatu. Bob Belakia ikusi eta gero, berriz, euren jarrera erabat aldatu da, eta aztoramen handia izan dute.


Ikerlarien esanetan, frogatuta geratu da telebistan ikusten ditugun filmek eragina dutela gure jarreraren, eta eragin hori gero eta nabariagoa izaten dela zenbat eta gazteagoa izan.

Internet gero eta azkarrago

EGUN INTERNETEN DUGUN ABIADURA eta orain hamar urte zegoena ezin dira alderatu. Ordenagailuek, dispositiboek, kableek eta abarrek izan duten hobekuntzari esker gero eta informazio kopuru handiagoa atzitu edo transmititu dezakegu gero eta denbora tarte txikiagoan.

Hala ere, egungo tresnen optimizazioarekin abiadura hobetzeak bere muga izango du hemendik gutxira: hobekuntza teknologiko batek abiadura pixka bat handitzea baino ez du eragingo. Nola eman, bada, jauzi kualitatiboak Interneten abiaduran?

Ikerketa bat baino gehiago egiten ari bada ere, guk hemen baten aldeko apustua egingo dugu. Grafenoaren aldeko apustua, hain zuzen. Grafenoa 2004an aurkitu zuten Manchesterreko Unibertsitatean (Erresuma Batua), karbono atomo geruza bakar batez osatutako materiala sortu zutenean. Orduz geroztik izugarri ugari dira beraren aplikazioak. Oraingoan, Interneten abiadura ehun halako bihurtzeko bidean jarriko gaitu.



Grafenoa. Material honi esker asko handitu ahal izango da Interneten abiadura.

Zer esango digute Marcouleko leherketaz?

Marcouleko leherketa gertatu zenean, Frantziak berehala adierazi zuen ez zela ihes erradioaktiborik gertatu. Fukushimaz gauza bera esan ziguten hasieran, eta gerora askotan idatzi behar izan dugu horretaz. Frantzia da Europar zentral nuklear gehien duen estatua, eta Fukushimaz gertatu ondoren iritzi errerealistenak hortik atera ziren. Beren etxean gertatutakoari buruz politika bera erabiliko al dute? Ondoko loturan, istripuaren biharamunena argitaratutako analisi interresgarria duzue ikusgai. <http://ttiki.com/31147> (Frantsesez)

Kontuz ura mikrouhinetan berotzekotan

Askotan berotzen ditugu ur kati-luak mikrouhinetan, baina erne ibili beharra dago, katilua eta bertan dagoen ura gehiegi berotuz gero mikrouhin-labearen atea zabaltu bezain laster bat-bateko leherketa gerta baitaiteke, ondoko artikuluan esaten diguten lez. <http://ttiki.com/31131> (Gaztelaniaz)

Zergatik desegin ziren New Yorkeko dorre bikiak?

Beheko loturako artikuluan esaten denez, dorre bikiak erortzearen arrazoi nagusia ez zen izan abioiek haien aurka talka egin izana, ondoren sortutako suteak baizik. <http://ttiki.com/31132> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Erre... errematea

Aurtengo klima urte xelebre honek ustekabeko emaitzak emango zituela esan banuen, esan nuen... Sekulako fruitu emana izan zen udaberri hasieran eta urte osoan halaxe jarraituko zuelako usaina hartzen nuen orduan.

Etorri zen, baina udaren ataria. Negua eta udaberri osoan eguna luzatu eta gaua mozten zihoan eran, gero eta euri gutxiago egiten zuen. Aspaldiko urtetako ur gutxiena izan zen. Ondo banatua, ordea. Ez zuten landareek gehiegi sufritu eta fruituak ontzeko ona. Etorri zen ekaina amaierako solstizioa, eta sua. Bero ikaragarriak egin zituen. Honek bai, jipoitu zituen bazterrak. Makina bat zuhaitz erre eta hil zen: pago, intxaurrondo, astigar, lizar... Erdipurdi harrapatu zituenenak egin zituen sargori tzarrak. Itxitura eta landare-hesiak egiteko erabiltzen diren tuiak, *Thuja sp.*, ere ederki erre ziren. Deigarriena, baina, sagarretan gertatu zen, sekula ezagutu gabekoa, gure kulturaren gogorantzean txertatu gabe zegoena: sagarrondoan zintzilik ziren sagar aleei eguzkitan zuten masaila erre zitzairen. Kiskali.

Gero ondo etorri dira, eta aleak ondo heltzen ari dira. Sagarrak bezala, udareak, pikoak, basakaranak... Fruitu urte emankorra. Inoizko aurreratua, baina, dena hamabosten bat egun lehenago...

Durbantean bihotza

BESTE LANDARE MORDOXKA batenaren antzera, idi-bihotzaren izenarena ere ez da kontu makala, badu nondik tira eta zer harilkatua. *Tulipa sp.*, tulipa da idi-bihotza. Inork beste izen berri bat proposatu, behar bezala jendarteratu eta egoki hedatuz, lehengo hau zapuzten ez duen artean, idi-bihotz. Izen honi seminario usaintxo hartzen diodala nioen, bada adi...

Asia Txikitik ugaritu eta hedatutakoa, jatorrizko izena pertsierazko *lâleh* du. Gaur egun ere Kurdistanen *halale* eta Iranen eta Turkian *lale* deitzen diote. Tratante turkoek hitz hau inperio otomanoaren garaiko hizki arabiarrekin idazten zutenean, berriz, *Allah* hitzaren antza ikaragarria zuen. Talo beraren beste aldeko usaintxo...

Eta non arraiotik dator latinezko zientzia izen *Tulipa*? Horri helduta umatu baitira beste hizkuntza sorta handi bateko izenak: tulipe, tulip, tulipan, tulipant, tulpe, tulipano... Itxura denez, Europa iparraldean, XVI. mendean, idi-bihotza sartu eta berarekiko bekaizkeria piztu zuena Oghier Ghislain de Busbecq izan zen, Inperio Otomanoa gorenera jaso eta harrotu zuen Suleiman I.a Bikainarengana Alemaniako Fernando I.ak bidalitako enbaxadorea zenak. Jagon den istorioak dienez, durbantean idi-bihotz bat zeraman norbait ikusi omen zuen enbaxadoreak. Honek aldamenean zeraman itzultzaileari ea hura zen galdetu zion, eta hark, lorea ikusi beharrean, durbanteaz ari zelakoan, lorearen *lale* beharrean durbantearen *tülbend* bota zion, lasai asko. Halabeharrez, hau ere pertsieratik datorren izena, *dulband* hitzetik, hain zuzen. Beste batzuen aburuz, ireki aurretik idi-bihotzaren loreak duen forma litzateke durbantearena, eta hortik izena. Batek badaki! Niri argitu zaidan gauza bakarra euskaldunon durbante hitza pertsierako *dulband* hitzetik datorrela. Ez da aza hostoa.

Itzultzaile haren garairako idi-bihotza inperioaren ikurra zen. Lore honek non ere, alde guztietatik behar zuen: zeramikan, artean, ipuinetan, bertsoetan, arropetan... Botanikaren historiarako geratu den durbante hartan zer ote zen idi-bihotza, ehuna beraren marrazkia ala bere tolesen artean zihoan lorea?

Babeslea: Alkartasuna



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritaren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala


T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com



Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

William Lamport, benetako Zorro



ENRIQUE ALCIATI



PETCHARY

Ezkerrean, William Lamporten estatua Mexiko Hirian; eskuinean, Tyrone Power aktorea *The Mark of Zorro* (1940) filmean.

WEXFORD, IRLANDA, 1615. William Lamport pirata, soldadu, espioi, kortesano eta errebeldea jaio zen familia noble baten baitan. 13 urte zituela aitak Londresko eskola batean matrikulatu zuen, baina bertara joateko goleta bat hartu zuen eta, han, pirata izatea erabaki zuen. Aurrerago Irlandako armadan sartu zen eta, kapitain mailara iritsita, besteak beste, Nördlingenek (1634) eta Hondarribiko (1638) gudueta parte hartu zuen.

Espainian Frantziaren aurkako gerran aritu zen eta, egindako lanari esker, Felipe Varen ministro Olivaresko konde-dukearen aholkulari izatera iritsi zen. Olivaresen gainbeherarekin bat Mexikora bidali zuten espioi, Mexikoko erregeordea Portugalgo matxinadaren alde ote zegoen iker zezan. Ezpatari trebea eta gonazale amorratua, etsaiak berehala egin zituen kolonian; besteak beste, Cadereytako markesarekin, erregeorde ohiaren emaztearekin izan zituen harremanak. Hala, Inkisizioak Guillen Lombardo –izena espainiar-tu zuen ordurako– epaitu eta espetxeratu zuen, sorginkeria, konspirazioa eta adulterioa leporatuta. Zazpi urte

eman zituen barruan eta, bertan, Espainiako erregearen aurkako jarraera areagotu eta kolonien independentziaren aldeko mugimendua bultzatu zuen, hainbat indiarrekin eta afrikar jatorriko esklaboekin batera. 1650ean espetxetik ihes egitea lortu zuen eta, egun gutxitan, Inkisizioak berriro atxilotu baino lehen, independentziaren alde gerran aritzeko armadaxoa antolatu zuen. Beste bederatzi urte eman zituen espetxean, Inkisizioaren aurkako libeloak idazten, 1659ko azaroaren 19an sutan hiltzera kondenatu zuten arte.

1872an Vicente Riva Palacio idazle mexikarrak Lamporten bizitzari buruzko *Memorias de un impostor* nobela idatzi zuen. Bertan, “Z” sinboloa agertu zen lehenengoz Lamporti lotuta: idazleak ziza hitz hebrearra erabili zuen, irlandarrak borrokan zuen “distira zerutiarra” deskribatzeko. 1919an, Johnston McCulley New Yorkeko kazetariak, *The curse of Capistrano* nobelan, Lamporten oinarritutako pertsonaia-ri Diego de la Vega izena ipini zion, eta Riva Pacioren “Z” hura Zorro ezizenaren marka bihurtu zuen.

Arrastoak

Nancy Wake espioi britainiarra hil da

NANCY WAKE (1912-2011) britainiarrentzat espioi lanetan aritu zen Bigarren Mundu Gerran. “Sagu zuria” ezizenez ezaguna –Gestapok ipini zion izen hori–, hasieran frantziar erresistentziaren mezulari jardun zuen, eta aurrerago Ian Garrow kapitainaren ihes-unitatearekin bat egin zuen. Ehunka pertsona lagundu zien alemaniarrek okupatutako lurraldeetatik ihes egiten. Eta, horrenbestez, aliatuen bandoan ohore-domina gehien jasotako emakumea izan zen.

Bizitza arriskuan izan zuen gerra osoan; Gestapok bost milioi liberako saria ezarri zuen 1943an hura harrapatzea lortzen zuenarentzat. Baina Wake joan den abuztuaren 11n hil zen, 98 urte zituela.



Daewoo

Deslokalizazioaren urratua Arabako lautadan

Daewoo Electronics-eko 147 langileak kalean geratu dira oporretatik bueltan. Krisiak deslokalizazioak larriagotu ditu; enpresa korearrak Gasteizko lantegiarekin egindako sarraskiak iragartzen du lan gatazka odoltsuen garaia hasi direla.

URKO APAOLAZA

GASTEIZKO Jundizeko poligono erraldoian bada etorbide madarikatu bat. Lehenik Saunier Duvalen txanda izan zen; faktoria galdaragi-leak 67 lagun despeditu zituen 2010eko amaieran. Ondoren etorri dira Esmaltaciones San Ignacio eta Daewoo. Horrela, 7 milioi metro koadroko azalera duen poligonoaren erdi-erdian orbain sakona ikus daiteke orain. Hiru enpresok deslokalizazioaren biktima izan dira: Vailant multinazional alemaniarrek eraman zuen Saunier Duvalen produkzioa Eslovakiara, Esmaltaciones San Ignaciok eraman du berea Marokora eta Daewook Hego Koreara.

Deslokalizazioa ez da gauza berria Euskal Herrian. Espainiako Funcas aurrezki kutxen fundazioak egindako ikerketa baten arabera, 1999tik 2006ra enpresa multinazionalen %60k alde egin zuen EAEtik. Baina badirudi egungo krisiak deslokalizazio olatu handiagoa ekarri duela: iraileko aste bakarrean, 600 lagunetik gora geratu dira lan-kontratua desegin dien enplegu-erregulazio espediente (EEE) baten pean, tartean Ezkirotzeko BSHko 178 langileak eta Beasaingo Indar lantegiko 140 behargin —multinazionalen esku, biak ala biak—. Lanik gabe geratutakoen perspektiba, gainera, ez da *bebi lodien* urteetakoa: abuztuan 182.136 lagun zeuden Hego Euskal Herrian lanik gabe, eta



ARGAZKI PRESS / JUANAN RUIZ

Daewooko langileak kalera atera dira behin eta berriz azken asteotan.

horietatik ia erdiak ez du jadanik langabezia saririk jasotzen.

Daewoo eta urrutiko intxaurrak

Daewooren itxierak lurrikara sortu du jendartearen, multinazional horren kasua paradigmatikoa baita. 1997an ezarri zen Araban eta Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa funtsezkoa izan zen horretarako. Aberastasuna eta lanpostuak ekarriko zituela ziurtatu zuten; 72 milioi euroko inbertsioa eta 412 lanpostu hitz eman zuen Daewook hozkailuak egiteko. Industria sailak 18 milioi euroko diru

laguntzak eman zizkion eta horrez gain pizgarriak jaso zituen zerga hobarien eta lur subentzionatuen bidez. Baina txakurrarena egin zuen. Inbertsioa eta lanpostuak ez ziren erdira ere iritsi, eta lan prekarioa besterik ez zuen sortu; hiru hilabeteko greba bat izan zen ordaina. Ondorioz, 1,8 milioi euro itzultzeko eskatu zion Jaurlaritzak Daewoori. Bestalde, etxetresna elektronikoen sektoreko patronalak gogor egin zuen Daewook izan zituen laguntza publikoen kontra eta Europar Batzordean salatu zuen kontua. Europak “Estatu

Jose de Miguel, Daewooko enpresa batzordeko presidentea «Enpresak bezeroei telefonoa eskegi die, lantegia hiltzen utzi dute»

Oporretatik bueltan lantegia itxita eta stocka eramanda aurkitu duzue, ez al zarete mugimenduez ohartu?

Bai noski, uztailean hasi ziren, hautsa hartzen urteak zeramatzen molde zaharrak txatartegian saldu zituzten.

Uztailean salatu zenuten lantegia “hiltzen” uzten ari zirela. Irailean hasi den kaleratze prozesuan aurkitu al duzue beste frogarik hori baieztatzeko?

Detaile oso adierazgarria ikusi dugu. Eusko Jaurilaritzara joan ginenean esan ziguten enpresa ez zitzaizela laguntza eskatzera joan, lantegia aurrera ateratzeko edo langileei irtenbidea emateko. EEEa entregatu zuten eta alde egin zuten. Lehenengo aldia omen da horrelako zerbait pasatzen dela. Ez duzu sikiera laguntza eskatzen? Ez, ez zuten horrelakorik behar, lantegia hiltzen utzi nahi zutelako.

EEEa “txapuz” bat izan dela esan duzue, Eusko Jaurilaritzak dokumentazio gehiago eskatu behar izan du.

Hor ikusten da EEEa aurkezteko argumenturik ez dutela, bestela ez lukete horrelako arazorik izango. Baina sinatu gabeko paper batzuk aurkeztu dituzte, inork ikuskatu gabekoak, zigilurik ere ez dute.

Enpresak esan du edozer dela ere itxi egingo duela.

Mehatxua egin dute, besterik da hori egin dezaketen.

Eusko Jaurilaritzak EEEa atzera botaz gero, negoziazioa hasiko litzateke zuzendaritzaren eta langileen artean. Zer lehenetsiko duzue? Hasi zarete indemnizazioetan pentsatzen?

Ez dugu indemnizazioez hitz egin nahi, gure lanpostua mantendu nahi dugu. Indemnizazioa segituan amaitzen da, denok dugu fami-



lia bat edo hipotekaren bat; etorkizun bat nahi dugu.

Zeinena da ardura?

Enpresarena. Oso gaizki kudeatu du kontua eta utzikieriaz jokatu du. Baina erakundeek ere badute zer esanik, Eusko Jaurilaritzak 6 milioi euro eman zizkion baina gero ez zituzten planak konplitu.

Daewoo bere negozioa saldu nahian ibili da, zergatik baina?

Beste nonbait inbertitu nahi dutelako agian. Arraroa da, EEEan ez dute arrazoi ekonomikorik azaltzen, produktiboak eta teknikoak baizik. Baina arazoa ez da produkzioa, badakigu bezeroek ez dutela

eskaerarik atzera bota; aldiz, enpresak zuzenean telefonoa eskegi die askotan.

Urte hauetan lan baldintzek zer bilakaera izan dute?

360 euro kobratzen hasi ginen eta grebara jo behar izan genuen jasanezina zelako, gazteak ginen baina ez tuntunak. Gero, soldatak igotzen joan dira, baina 2008an, berriz ere, greba egin behar izan genuen. Topera produzitzen ari ginen, 900 hozkailu eguneko, eta hala ere, ez zituzten gure baldintzak hobetu nahi, krisia aitzaki hartuta. Aberastasuna eta garapena ekarri beharko litzuzkeen enpresa batek, hamalau urtetan gatazkak besterik ez ditu sortu.

Zer babes jaso duzue erakundeetatik?

Eusko Jaurilaritzak EEEa eten zuen, egin behar zuena egin zuen. Babes handia izaten ari gara, baina eduki genezake gehiago. Askotan ahoa betetzen zaie enpleguaren alde. Esmaltaciones San Ignacioak ere greban dira. Enplegua defendatzeko aukera paregabea dute orain.

laguntza” gisa hartu zituen subentzioak eta horrez gain *opor fiskalak* ikertzeari ekin zion; horiek ere legez kanpokotzat jo ditu.

Daewooren itxiera EAJk 90eko hamarkadan erakundeetatik bultzatutako politika industrialaren porrot gisa hartu dute zenbaitek, laguntzen bidez artifizialki eraikitako gaztelua bailitzan. Aitzitik, atzerriko inbertsioa erakartzea gobernu guztien grina izan da. Lopezen exekutiboak, esaterako, *Invest in the Basque Country* agentzia jarri du martxan aurretik SPRIren bidez, atzerriko kapitalak EAEn inbertitu dezan sustatzeko.

Atzerriko inbertsioarena aho biko labana da ordea. Dirua eta lanpostuak eramanez ditzake ekarri

dituen moduan: “Ez zaizkigu interesatzen erosi eta eramanez egiten duten enpresak”, zioen SPRIko presidente Tomas Orbeak berriki. Euskal Herriaren industria autoktonoaren pisua handia da beste herrialde batzuekin konparatuta, baina badaude zenbait eskualde multinazionalen dependentzia dutenak, batez ere Lapurdin, Nafarroan eta Araban. Araban, Merkatal Ganberak 2007an zioen industriako hiru langileetik batek gisa horretako enpresetan egiten zuela lan, Michelin eta Mercedes Benz tarteko. Geroztik itxi dira Newell, Cegasa, Kennametal, Kemen, BH, Ceplastik, Thaiser... Horietako gehienetan deslokalizazioaren eta atzerriko esku beltzen itzala egon da atzean. 2011ko lehen

sei hilekoan Eusko Jaurilaritzak 76 EEE onartu ditu Arabako lautadan; erkidegoko kopururik altuenetakoa du eskualdeak.

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundutan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Opor osteko ezustekoa: egunez ikusi eta gauez...

Gasteizko Plaza Berrian Daewooko langileak kamisetak probatzen ari dira. Kartelak eta bozgorailuak prest dituzte, enpresa batzordeko kideek Javier Maroto alkatearekin hitz egiten duten bitartean kontzentratzeko. Abuztuaren 22an Jundizeko fabrikara lanera itzuli zirenean atek itxita aurkitu zituzten, makina batzuk desmuntatuta zeuden eta 10.000 hozkailuko stocka egun gutxitan handik eramanda.

“Duela urtebete hasi ziren lehenengo EEeak eta hasierako pentsamendua izan zen, ‘ostras parora noa’, baina beste batzuk ere horrela zeuden. Hala ere, enpresak ez zuen inbertitzen eta sumatzen genuen zerbait bazetorrela, horregatik hasi ginen uztailan mobilizatzen”. Estibaliz Azpitarte, 36 urteko gasteiztarra, Daewoo Jundizen ezarri zenetik aritu da bertan lanean. Uda honetan ez da oporretan inora joan: “Oporrak ondo izorrratuta pasatu ditugu. Nik nahiago izan dut hemen geratu, zer etorriko zain”.

Daewook “merkatuari dagozkion arrazoiak” labur batekin kitatu nahi ditu langileak, baina Eusko Jaurlaritzak ez dio behin betiko EEeA onartu, dokumentazioa falta dela esanez. Enpresak lantegia “hiltzen” utzi dutela diote Daewooren Gasteizko langileek, Europar laster derrigorrezkoa izango den A+ eta AA+ zigiluko hozkailuak egiteko inbertsiorik ez duelako egin. Aldiz, Hego Koreako Incheon hiriko fabrika zigilu horietako hozkailuak produzitzen hasi dira

ARGAZKI PRESS / JUANAN RUIZ



Ateak itxita eta 10.000 hozkailuko stocka eramanda aurkitu ziren langileak oporretatik bueltan lanera itzultzean.

Egiaz, enpresa aspalditik dabil bere negozioa saldu nahirik, 1999an Daewoo talde-munstroak kiebra jo zuen Asiako finantza krisiak eraginda, bere filial ugari banandu egin ziren, tartean Daewoo Electronics, besteak beste Jundizeko plantaren jabea. Daewoo Electronics hartzekodun batzuen menpe dago egun eta Enthekap firma irandarrarekin eta Electrolux suediarrekin negoziazioetan ibili da azken hilabeteotan enpresa saltzeko, 529 milioi euro daude mahai gainean, baina ez dute arrakastarik izan.

Gurasoak eta hipotekadunak

Gasteiztarrek ondo dakite langileen borrokak nola diren. Memorian dituzte trantsizio garaiko gatazkak edota Caballitoren bezalako greba luzeak. Hainbat lagun sinadurak biltzen ari da kaleetan: “Babes eta animo asko jaso dugu, baina denetarik dago, batzuek uste dute diru

eske goazela”, dio Idoia Tejedorrek. Duela lau urte Daewoon hasi zenean, ez zitzaiokeen burutik pasa ere egingo sinadura biltzen amaituko zuela. “Etxean esaten nuenean bota egin nahi gintuztela ez zidaten sinesten. Baina tira, beste batzuk ni baino okerrago daude, seme-alabekin eta abar”. Lantalde gaztea da eta gehienak hipoteka batean sartuta daude, asko seme-alaba txikiekin, eta badago kalean geratu den bikoterik ere.

Etorkizunari begira, enpresako zuzendaritzarekin izan beharreko negoziazioak dituzte buruan. Badakite prozesu luzea izango dela, bi aste epean apenas mugitu baita ezer tramiteetan, baina presioa egiten utziko dute erretoa: “Ezin duzu beste ezertan zentratu —dio Estibaliz Azpitartek—, nik estudiatzen hastea pentsatu nuen, baina ezin izan dut, hau konpondu arte behintzat, ez”. ■

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA

Euskanta 2011

Italiar musikari txikiak euskaraz abesten

Erromako Associazione Culturale Euskara (ACE) elkarteak eta Unibertsitate Herrikoiko (UPTER) Euskal Sailak askotan egin diote euren buruari galdera hau: zer da atzerrian euskara irakastea? *Euskanta 2011*ren bidez, haur italiarrak euskaraz kantatzen jarri dituzte.


ONINTZA IRURETA AZKUNE

ERROMAKO Alfieri eskola publikoko 50 haurri, bakoitzak bere poema idazteko eskatu diete. Poemak jaso eta euskarara ekarri dituzte. Ondoren, 9 urteko haur horiei euskaraz nola irakurri erakutsi diete. Erraz moldatzen dira italiar txikiak euskara ahoskatzen, “tz” azkar asko menperatu dute. Irakasleek poemen itzulpenak eta euskara-italiera hiztegitxoak eskuan jarri dizkiete. Kantuaren testua egina dago, orain musika falta da.

Umeak ordenagailu aurrean eseri dira teklatuaren bidez pop abestia sortzeko. Hainbat instrumentu aukeratu dituzte eta bakoitzarekin probak egin hasi dira. Atsegin dituzten zatiak gorde dituzte. Instrumentuak landu eta gero, beraiek hasi dira kantuan, euskarazko testua ondoan dutela. Bi kontu eskatu dizkie irakasleak haurrei, batetik, euskaraz ondo ahoskatzea, eta bestetik, melodia zaintzea. Ordenagailuetan gordetako puska mordoak Alex Mendizabal musikariaren eskuetan geratu da. Hark egingo du garbiketa, eta kantuari moldeak eman. Amaitu da ariketa, italiar txikiak musikari bihurtu dira. Euskal Herriari buruz eta euskarari buruz azken egunean baino ez die hitz egin Mendizabalek.

Ez zaie abestia ahaztuko

Euskanta 2011 du izena proiektuak eta bigarren urtez egin dute ACEk eta UPTERek elkarlanean. Alex Mendizabalek, ACE elkarteak kideak, hala esan digu: “Kantuak asko erabili dira hizkuntzak erakusteko, baina besteen kantuak, ez nor-



berarenak. Askorentzat, bizitzan egingo duten abesti bakarra izango da, haurrari kantu hori ez zaio ahaztuko, ezta alzheimerra daukanean ere”. Baina nola konbentzitu dituzte Erromako irakasleak euskara eskolak emateko? *Euskanta* proiektuan euskara ez dago lehen planoan, oinarria musika da. Haurrak musikari bihurtu izana asko gustatu zaie irakasleei.

***Euskanta* proiektuan euskara ez dago lehen planoan, oinarria musika da. Haurrak musikari bihurtu izana asko gustatu zaie irakasleei**

2011ko edizioan 50 haurrek bina egin dute lan eta 25 kantu sortu dituzte. Iaz Manetti eskola publikoko 47 haurrek kantu bana egin zuten. Abesti guztiak www.euskara.it webgunean zintzilikatuta daude. Iazkoak bezala aurtengoak, kantuak CDetan jaso dituzte eta liburuxka ere argitaratu dute. Liburuxkan haurrek italiaraz sortutako poema dator, baita euskarazko itzulpena ere, eta hori ulertzeko lagungarri den hiztegitxoak. Haur bakoitzak hamar bat kantu ikasten ditu buruz; lagun minenak, *hit*-ak eta noski, berea. Euskara umeen buruan geratu da, eta bide batez, CDaren eta liburuxkaren bidez, etxera daramate Euskal Herriko hizkuntza. Ziur asko liburuxkako hasierako orria irakurriko dute amaitek eta aiton-amonek. Lerro gutxitan ematen da euskararen berri.

***Euskaraccio* manifestuak dio:**

Associazione Culturale Euskara elkarteak 2002an sortu zuten eta Università Popolare di Roma (UPTER) 2005ean. Lehenengoak elkarte izaera du eta bigarrenak profesionala. ACE euskal etxe antzekoa da, hori bai, egoitzarik ez daukan euskal etxea. Elkarteak eta unibertsitateak asko sakondu dute atzerrian euskara irakasteaz eta bien filosofiek bat egin dute. Bien helburua euskara eta euskal kultura zabaltzea da eta ia ekimen oro elkarrekin eginen dute. Erroman euskal komunitaterik ez dagoenez, hasieratik eginkizun guztiak euskara eta euskal kulturaren inte-

Euskaraccioz egiten duenari ez zaio zuzentzen, euskaraccion esandako guztia ondo esana dago, ulertzen ez den guztia intuitu egiten da

resa duen edonorentzat antolatu dituzte. Bataren zein bestearen irakaste filosofia argi erakusten duena ACEk idatzitako manifestua da, *Euskaraccio* izeneko aldarria. Italierazko testua webgunean zintzilikatu dute, eta labur esanda, hauxe dio: *euskaraccioz* egiten duenari ez zaio zuzentzen, *euskaraccion* esandako guztia ondo esana dago, ulertzen ez den guztia intuitu egiten da. *Euskaraccio* dialektoen, onomatopeien, keinuen laguna da. Eta batez ere, *euskaraccio* ez da zuzentzen. ACEk eta UPTE-Rek mota askotako euskara ikastarokak eskaini dituzte. Eskola arruntak eman dituzte Erroman, baita hirulau eguneko barnetegiak ere. HABE-rekin duten hitzarmenari esker Internet bidezko Boga programa ematen dute. Bestelako “euskara eskolak” aipatzen hasita, EPE eta *Di-Esan* proiektuak azaldu behar.

EPEk Eromako (sic) Parkeetan Euskaraz esan nahi du. Ogitartekoak prestatu eta mintzapraktika egitera parkeetara joan ohi dira, paseotxo bat eman, jan, eta ahal den neurrian euskaraz egin. Ahal den neurrian diogu, euskara maila oso desberdineko jendea batzen delako. ACEk eta UPTERek antolatutako euskara eskoletan edozein pertsonak, edozein euskara mailakoek edo nazionalitatekoek daukate parte hartzea. Biek argi dute etengabeko heziketa, alegia, ikasketa bizi osoko zerbait dela. Alex Mendizabalek, horren erakusgarri, eskoletako hainbat ikasleren profilak kontatu dizkigu: justu-justu irakurtzen dakien 75 urteko ita-

CD 1 BAT

Antonella Ramirez & Alessandro Carrulli

Il calcio ma quando arriva il vento

Il calcio è il mio amore/ Ma quando arriva il vento allo stadio/ Fa molto freddo nel campo/ C'è un albero che si sta spogliando/ La Lazio la mia squadra preferita/ E quando gioca l'albero si spoglia/ Sempre di più se vinciamo le foglie/ Rinascono subito/ Se perdiamo cadono/ Ma noi siamo felici se la Lazio vince/ Perché cresceranno molte foglie/ Il pallone è uno sport molto duro/ Come le radici di un albero/ Il mio giocatore preferito è Hernanes/ E il mio albero preferito il pesco.

DIZIONARIO/HIZTEGIA

futbola: il calcio
da: è
nire: il mio
amodioa: amore
haizea: il vento
zelaian: nel campo
hotz: freddo
zuhaitza: l'albero
biluzi: si spoglia, spogliare
nire: il mio
taldea: squadra, gruppo
jolasten duenean: quando gioca
zuhaitza: l'albero
biluzi: si spoglia
Guk: noi
irabazi: vincere
hostoak: le foglie
haz: crescere, sviluppare
Guk: noi

galda: perdere
hostoak: le foglie
jauzi: cadono, cadere
laziok irabazi: quando vince la Lazio
irabazi: vincere
ta: e
guk: noi
pozik: felici
baloia: il pallone
kirol: sport
latza: duro
sustraia: la radice
zuhaitza: l'albero
jokalari: giocatore

Futbola haizea zelaian

Futbola da nire amodioa
Haizea zelaian hotz
Zuhaitza biluzi
Lazio nire taldea
jolasten duenean
zuhaitza biluzi
Guk irabazi
hostoak hazi
Guk galdu
hostoak jauzi
Laziok irabazi ta
guk pozik
Baloia kirol latza
sustraia zuhaitza




CD 1 BAT

Leonardo Pesce & Andrea Tirelli

Vola l'uccello

Vola l'uccello / per disegnare con un grande azzurro acquarello / e come un aeroplano / e man mano che disegna va più lontano / solo lui sa dove va / e se sbaglia un dolore non avrà / Egli disegna il frutto dell'ulivo / e se cancella canta cantu giulivo / e disegna nell'erba quattro quattro / il mio gatto

DIZIONARIO/HIZTEGIA

txoria: uccello
hegan: volare, volando
akuarela: acquarello
urdin: azzurro, blu
zabala: largo, ampio
margotuz: dipingendo, colorando
margota: dipingere
margo: colore
hegazkina: aereo
lez: come
marratz: disegnando
ta: e
aldendu: allontanarsi
berak daki: lui sa
Bera: lui
daki: sa
nora: dove
doan: va
eta: e
pot egitean: quando sbaglia

pot: sbaglio
egin: fare
minik ez: niente dolore
min: dolore
ez: no
bost axola: se ne frega
bost: 5
axola: importare
olibondoa: l'ulivo
marratzen: disegnando
kantu: canto
kantu ta cantu naiz borratzen: sia cantando che cancellando
borratzen: cancellando
belarrea: nell'erba
belar: erba
geldo: quanto
nire: mio
katua: gatto
margotzen: dipingendo

Txoria hegan

Txoria hegan akuarela urdin

zabala margotuz

hegazkina lez marratzu ta aldendu

berak daki nora doan

eta pot egitean minik ez bost axola

Olibondoa marratzen cantu ta cantu naiz borratzen

eta belarrea geldo geldo nire katua margotzen




“Amodioa”, “Ortzia”, “AsperAsper”, “LainoLodi”, “ElurraMaraMara”... horiek dira 9 urteko haurrek beraiek sortutako abestiei jarritako izenetako batzuk.

liarra; inongo leku akademikotan onartuko ez luketen paperik gabeko etorkina; Euskal Herriari buruz doktoretza egin duena. “Guk denei ongi etorria egiten diegu eta bakoitzari behar duena ematen saiatzen gara”.

Mendizabalek *Di-Esan* izeneko bideoa partaideak ere euskara ikasleztatu ditu. Erromako kaleetan jendeari galdetu diote ea zer nahi duen esan kameraren aurrean. Haiek esandakoa euskaratu eta paperean idatzi diote. Emaizta jakina da: erromata-

rrak euskaraz hitz egiten ageri dira pantailan eta materiala Interneten (www.euskara.it) eskegi dute. “Euskara ikasle” berriak lagunari esango dio: “Aizu, badakizu Interneten agertzen naizela euskaraz hitz egiten?”. “Euskaraz? Zer hizkuntza da hori? Esango non agertzen zaren?”. ■

www.euskara.it webgunean “Euskaraccio” manifestua, “Di-Esan” bideoa eta “Euskanta 2010”eko abesti guztiak daude.

Babeslea: Usurbilgo Udala

Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz!

Usurbilgo Udala

Usurbil osasuna atez ate




Arrakasta duena zergatik aldatu?

1960-70EKO HAMARKADE TAN, batik bat Andaluziatik, Kataluniara jo zuten lan bila milaka lagunak. Eskoletan, lehen aldean, asko entzuten zen gaztelania. Katalanari eutsiko bazioten zerbait egin beharra zegoen. Bi eskola eredu egin beharrean —batek gaztelania izango zukeen irakas hizkuntza eta besteak katalana— eskola eredu bakarraren aldeko apustua egin zuten. Katalana izango zen eskolako hizkuntza ardatza eta Espainiatik joandako gaztelania hiztunak bertako hizkuntzara hurbiltzeko ahalegin berezia egingo zen. Josep M. Cervelló Som Escola erakundeko kidea da eta garbi dauka zein izan den mur-

giltze ereduaren ia 30 urteko emaitza: “Urte haietan zalantza izan zen, ea haurrak hizkuntzaren arabera bi eskola eredutan banatu



Irailaren 12ko manifestazioetan erabilitako afixa.

behar ziren ala ez. Eskola bakarren alde egin zen eta horrek emaitza onuragarriak baino ez ditu izan.

Haur guztiek daukate katalana ikasteko aukera eta kohesio sozialerako balio izan du eskola eredu bakarrak. Bigarren immigrazio etorrerarekin gaude orain, aurrekoa baino askoz konplexuagoa da. Bideak berbera izan behar du.

Guk presioa egiten segiko dugu Generalitateak interes politiko jakin batzuen aurrean amore eman ez dezan”.

Bi hilabete zeuzkan Generalitateak gaztelaniaz ikasteko eskubidea bermatzeko eskatu duten familiei jaramon egiteko. Irailaren 12ko manifestazioetan milaka lagun atera ziren kalera Generalitateari burua ez makurtzeko eskatzera. Momentuz Auzitegiak atzera egin du eta bi hilabeteko ultimatumak bertan behera utzi du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Kutxa Bank, Bildu eta Espainiako Bankua

Azken orduko sorpresarik ez bada, aste honetan, hilaren 23an, Kutxa, BBK eta Vital-eko batzarrek Kutxa Bank sortzeari baietz esango diote. EAEko hiru aurrezki kutxen arteko “fusio hotzaren” ondorio da. Bizkaia eta Arabako kutxek jada onartu zuten operazioa joan den ostiralean eta Kutxakoak aste honetan bertan egingo du. Fusio hori modu harrigarrian egingo da, kutxen eta Bilduren arteko negoziazioaren ondoren —batzuentzat gardentasun gutxiokoa—. Fusioa ez onartzeko gakoak ziren gaiak (pribatizazioa, hiru urtera mugatutako gizarte ekintza, euskal lan arlotik aparteko negoziazio kolektiboa...), ezker abertzalearentzat jada gako izateari utzi zioten Bildurekin lortutako hitzarmenaren ondoren. Bilduren arabera, kutxak ez pribatizatzea blindatu zen, baita epemugarik gabeko gizarte ekintza eta langileek nahi luketen negoziazio kolektiboa ere.

Baina, nork berma dezake ezer, logika kapitalista mantentzen duen eta Espainiako Bankuak baldintzatua dagoen finantza sistema honetan? Nork blindatu dezake ezer, jadanik hasi bada kutxen bankutzea? Kapitalak bere legeak inposatzen ditu, eta beretzat, dibidenduak kontraesanean daude gizarte ekintzarekin. Ez da harritzekoa hainbat sindikatu eta agente politiko fusio honen kontra azaldu izana.

Bilduk ardura handia hartu du: akordio hau beteko dela zaintzea. Eta, zer egingo du Espainiako Bankuak bere arauak inposatu eta akordioa hausten badu? Espero dezagun balizko kasu horren aurrean Bilduk B plana aurreikusi izana. Aukera hori akordioan idatzita utzi beharko luke. Euskal finantza erakundeak, beste asko bezala, Madrilgo, Pariseko eta Bruselako gobernuen menpe daude. Ez litzateke lehenengo aldia izango, ezta azkena ere, Euskal Herriari erabakitzen ez uztea eta ez errespetatzea gehiengo politiko, sozial eta sindikalaren borondatea.

Juan Mari Arregi

Martin Kittok Tolosaldeko Euskararen Semaforoa blogean esanak: “Harriduraz eta kezka ari naiz ikusten Jaurilaritzak bultzatutako ‘Munduoro euskaraz’ kanpainak ez duela ia kritikarik eragin. Izena ere esanguratsua du kanpainak: ‘Munduoro euskaraz. Abierto al mundo’. Euskaraz bai, baina gaztelania jarraian, legeak agintzen duen elebitasunari jarraiki.

Iragarkiak telebistan, leloa kultur eta kirol ekitaldietan, material banaketa udaletan... Ez da gastu makala! Baina, gastuak gastu, zein da kanpainaren mezua? Niagarako ur-jauzietan euskarazko kartela, Hongkongeko hiriko kartel festan Joxean harategiaren kartela (bai, horrelaxe, euskaraz: JOXEAN HARATEGIA), eta beste hamaika irudi surrealista.

Emakumeek askotan kritikatzten dute ‘emakume floreroren’ erabilera. Euskaldunok, ez: ez ditugu kritikatzten ‘euskararen alde’ egiten diren kanpaina ‘floreroak’, eta hori, ez kritikatzeko, gauza triste da, kritikarik gabe besteek esaten edo egiten dutena onartu besterik ez zaigulako geratzen”.

Bota duenaren aurka itzuliko den harria

ANGELA MURILLOK Bateragune auziko epaimahaiburu izango zela iragarri zenean, askok pentsatu zuten ez zela batere datu ona epaiketaren emaitzetarako. Ez, berez, Auzitegi Nazionalen konfiantzarik dagoelako, baizik eta Murillok dagoeneko askotan erakutsia zuelako bere jarrera hainbat epaiketetan. Horren erakuslerik argiena zen Auzitegi Gorenak berak ere Arnaldo Otegiaren *Gatza* auziko zigorra baliogabetu zuela Murilloren inpartzialtasunagatik.

Baina Bateragune-ko ahozko auziak aurrera egin ahala Murillo eta epaimahaiarekiko beldur horiek biziki baretu ziren, behintzat iritzi publikoari dagokionez. Epaiketan gauza asko azaleratu ziren, nagusiki auziperatuen pentsamoldeaz eta baita hauek azken urteetan egindako lan politikoaz ere. Auzipetuek argiki azaldu zuten ezker abertzalearen baitan izandako lehia eta nola irabazi zuten lehia hori. Areago, bazirudien ezker abertzaleko sektore irabazle hori epaiketa bera erabiltzen ari zela bai zigorra saihesteko –normala den gisan–, bai barne eztabaida erabat finikitatzeko eta lehia horren kontaketa molde bat sozializatzeko.

Horregatik guztiagatik, eta epaiketan zehar fiskaltzaren tesia eta frogak hain ahulak agertu zirelako, euskal gizartean bazen absolutuorako esperantzarik. Horretarako baziren arrazoi juridiko ugari, baina nagusiki bazen garai berri batekiko kontzientzia sakon eta indartsua, eta uste zen garai bateko “dena da ETA” baldar hark ezin zuela normalizazio politikoaren prozesua zangotrabatu. Gainera, nahiz eta jakin Auzitegi Nazionalen edozer gerta daitekeela, baziren absolutuoraren tesi hauek indartzen zituzten aurrekari sendoak, esate batera, Egunkaria

auzia edo Udalbiltza auzia. Hori guztia, zelanbait bazegoen euskal gizartearen iritzi kolektiboaren zati handi batean.

Eta horrexegatik, Bateragune auziko harrizko epai honek aspaldi ez moduan kolpatu du euskal gizartearen kontzientzia kolektiboa. Patxi Lopez lehendakaria epai hau euskal gizartean ez dela ulertzen esatera behartzeraino. Datozen aste eta hilabeteetan eskua erreko dion epaia izango da hau lehendakariarentzat, epai hau bakearen aurkako neurri gisa eta, funtsean, Estatu inposaketaren agerle esanguratsu moduan ikusten delako. Espainiako Estatuaren botere banaketaren eta epaiak onartu beharraren diskurtsoa ahula da euskal gizartean, baina Murillok gidatutako epai honek txikitu egin du ikuspegi hori, Jose Yoldik *El País*eko bere blogean iradokitzen duen moduan, erabaki hau sumarioko frogetatik baino epaimahaiaren errailetatik ateratzen delako.

Autoa beldurgarria da. Esaten du ezin dela frogatu Bateragune izeneko talderik izan zela, baina bai ordea auziperatuak ETaren

aginduetara ari zirela, batzuk ETako buruzagi gisa –Otegi eta Diez– eta beste batzuk hauen aginduetara –Zabaleta, Jacinto eta Rodríguez–. Eta frogak? Froga argirik ez dagoela dio epaimahaiak, baina adierazle ugari bai eta hauek nahiko indar dutela zigorra justifikatzeko. Zein adierazle? Iparraldean aritu zirela bilerak egiten eta jardun hori era gordean egiten zutela. ETaren agirietakoa betetzen zela, gero, ezker abertzaleko agirieta –funtsean metaketa soberanistarena–. ETaren hainbat agirieta eta auziperatuek jorratutako beste hainbatetan antzeko terminologia dagoela. ETA ez zutela gaitzesten eta bere desagerpena argi eta garbi eskatu ere ez...

Eta harrigarriena, auzipetuek borroka armatuaren aurka daudela publikoki adieraztea eta ETA sobran dagoela esatea zigorra saihesteko trikimailu bat besterik ez dela. Eta arriskutsuena (autoaren 37 eta 38. orrialdeetan), auzipetuek adierazpen askatasuna eta jardura politikorako eskubideak gainditu zituztela beren jardunarekin, eta jardun horrekin beraiekin bat datozen eta antzeko ideiak dituzten beste erakunde batzuen jardura biolentzia ahalbiderratu eta babestu dutela.

Funtsean, datozen asteetan aktualitate politikoan egongo den gaia aurreratu du sententziak: ea Bildu azaroaren 20ko hauteskundeetan egon litekeen ala ez. Eta epaiaren muinak dio ezetz, Bildu, azken finean, ETak metaketa soberanistarako asmatutako tresna bat dela. Ea zer dioen fiskaltzak Bildu-Aralarrek aurkeztuko duten hautagaitzaz, baina oso posible da maiatzean Bilduren legeztatzean bizi izandako kapitulu haiek guztiak orain berriz errepikatzea.

Funtsean, datozen asteetan aktualitate politikoan egongo den gaia aurreratu du sententziak: ea Bildu azaroaren 20ko hauteskundeetan egon litekeen ala ez. Eta epaiaren muinak dio ezetz, Bildu, azken finean, ETak metaketa soberanistarako asmatutako tresna bat dela

PELLO ZUBIRIA

‘Corium’ esatea debekatuta dago Fukushima

Hitz tabua da, Fukushimaz iritziak ematen dituzten milaka aditu eta kalakarien arteko bakan batzuek aipatzen dutena. Askok ezagutuko ere ez dute. “Corium” diozu? Zentral nuklearren jabe eta arduradunek badakite zer den, baina isilaraztea hobetsi dute. Nola azaldu jendeari erregai nuklear urtuek sortutako magma goriak kontrol barik darraiel?

IRAKURLE: JATEKO PUSKA LEHORRA gerta dakizuke aste honetako NET HURBIL. Beharrezkoa, ordea, Fukushiman zer gertatzen ari den eta batez ere aurrerantzean zer pasa daitekeen ulertu nahi baduzu. Goazen eskolara.

Frantsesezko *Fukushima-over-blog* aberatsa idazten duen Pierre Fetet-ek dioenez, “corium hitza tabu da TEPCOrentzako. Zergatik ez duen sekula aipatzen munduan jazo den hondamendi nuklear handienaren arduradunak? Argi eta garbi, horixe delako gizakiak inoiz sortu duen materialik arriskutsuena, ezin kontrolatuzko eta ezin kudeatuzko magma bat, ondorio kalkula ezinak dakartzana”.

Corium hitza ingeles hiztunek sortu neologismoa da. *Wikipedian* azaltzen da ingelesezko, alemanezko eta frantsesezko edizioetan, ez aldez gaztelaniazkoan edo euskarazkoan. Agian horregatik zenbait jendek nahasten ditu coriuma eta kurioa (ingelesez *curium*, espainolez *curio*). Kurioa gai ezagunagoa da, gaztetzotan ikasi genuen taula periodikoan 96. zenbakia dauka eta plutonioaren manipulaziotik sortzen da. Coriuma beste gauza da.

Coriuma sortzen da istripu nuklearretan, erreaktoreen muinean –*core* ingelesez– elkarrekin nahastuta urtzen direnean erregai dauzkaten

uranioa eta plutonioa, eta erreaktore barruan ipinitako gainerako gaiak: zirkonioa eta bestelako aleazioak, erregaiei eusteko barra eta beste mekanismoak, erreaktorearen ontzia eginik dagoen altzairua bera, errefrigerazioko hoditeria, eta abar.

Naturan existitzen ez den gai berri hau sei alorretan da txit muturrekoa: oso-oso ahalmen handiko, toxiko, erradioaktibo, bero, trinko eta korrosiboa da.

Fukushimako corium guztien artean daukaten ahalmena kalkulatzeke, hona datua: urtu diren hiru erreaktoreek batuta 33 milioi pilula erradioaktibo hatz baten lodierakoak zeuzkaten erregaitzat, eta horietako bakoitzak tona bat ikatzek adina energia darama. Kontuak atera zer nolako beroa dagoen hor pilatuta.

Fusioan ari diren gaiok eten gabe gas eta aerosol arras toxikoak isurtzen dituzte, haizeak oso urrun eramanez partikulaz osatuak. Izugarri erradioaktiboa ere bada ore hau, ezin zaio inor hurbildu ingurura, segundo gutxitan hiltzeko arriskuan legoke eta.

Corium hau txit bero dago. 2.500 gradu inguruan, 3.200etara iritsiz. Konparaziorako, sumendi batek 700-1.200 gradutan jaurtitzen du laba. Bero horiekin coriumak inguruko dena urtzen eta desegiten du bere saldatan, hormigoia ere bai. Txernobyl-

Interneten coriumaren oso argazki gutxi aurkitzen dira, eta bitxia da, laborategietan egin diren esperimientuen edo orain arte gertatutako irudietan hartutako irudi asko egon behar dute hortik barrena... inoren giltzapean. Frantziako Erradiazioekiko Segurtasun Institutuaren –ISRN frantsesezko sigletan– guneak erakusten du bideo bakarretakoa, 2009an *Vulcano* esperimientuan grabatua: metal urtua gori daukan arragoa dirudi ikusi batera. Bideoak ere oso urri dira; horietako batean Ex-sfk blogari famatuak dauka hartuta Japoniako Ekonomia Ministerioaren simulazio didaktiko bat, non erakusten den nola gertatzen den istripua. Gaur horrelako materialak zentsuratuta daude Japonian. Lerroon ondoko irudia Philippe Hillion-ek atera eta jarrita dauka sarean: horrela aurkitu zuen 1987an urtutako coriuma Txernobylgo sotoetan 2005ean, oraindik bero eta erradiazioz gainezka.

go zentralaren leherketak sortu zuen coriuma “hotzean egonkortu” fasera heltzeko 6-7 hilabete behar izan ziren. Egia esan, “hotzean” hori hitz egiteko modu bat da: 2004an, 18 urte beranduago, 1986an urtutako erregaia inguruan 36 gradu neurtzen ziren.

Fukushiman coriumak sortu dira lautatik hiru erreaktoretan, ordu luzez egoteagatik hoztu gabe. Hiruen artean 257 tona erregai zeuzkaten; Three Mile Islandeko istripuan 20 tona ziren, Txernobylgoan 50-80. Fukushimakoetako batean, gainera, plutonioa ere bazen. Tona guzti horietatik zenbat atera dira ontzietatik? Bestelako zenbat material gehiago bildu zaie urtuta? Non eta nola ari dira ore guzti horiek irakiten?

Hoztu ezin den ore

Laborategietan egindako simulazioek erakutsi dute Fukushimakoak bezala erreaktoreak urrik gabe geratu eta 6 ordura urtzen hasten zaiela barneko muina, 7 orduren buruan ontziaren ipurdia desegina dago eta 14 ordu pasatakoan zortzi metroko hormigoizko oinarria zeharkatu lezake.

Pierre Fetetek bere laburpen argia idazteko erabili duen iturrietako batean, *Radioprotection Cirkus* foro teknikoan, eztabaidatu da noraino heldu ahal izan diren Fukushimako coriumak. Baliteke zentralak zorupean daukan hutsune zabal batean



hipotesietan— horregatik hustu zituzten itsasora apirilaren 4an zentralaren sotoetako 11.500 tona ur erradiatu, lurrindurik eztanda egingo zuten beldurrez. Hori hala balitz, esan nahiko zuen coriumak hiru aste behar izan zituela erreaktoreen azpiko hormigoio lodia zulatzeko, zorionez ez dela lurtutako ore guztia ontzitik atera.

Beste arrisku bat gehiago Fukushima coriumek: leherketa nuklearrrena. Hain zuzen, badira adituak uste dutenak hori jadanik gertatu dela 3. eraikinean, uranioaz gain plutonioa —MOX famatua, zehazki Frantziako Marcoulén ekoizten dutena— zeukan hartan. Baina horrelakorik jazotzekotan, bonba militarren aldean milioika aldiz txikiagoa litzateke. Albiste onen bat behar zen.

Bukatzeko, magma goritu horrek ura erabili lezake barnean daraman erradioaktibitatea inguruetan barreiatzeko. Hori gerta liteke bai lurpeko geruza freatikoetan aurkitutako urak edo bai itsasokoak kutsatuz. Ez ahaztu hondartzatik 200 metrora daudela erreaktoreak. Azken finean coriumak dakartzan txikizio guztiak arrisku nagusi honi daude loturik, dozenaka urtez hoztu ezinik eta ondorioz kontrolatu gabe egongo den saldak planeta osora barreiatuko dituela partikula erradiaktiboak.

Honetan ere, coriumaren ezagutzan alegia, laborategi ari da suertatzen Fukushima Daiichiko zentrala, hiru erreaktoreetako coriumak kontrolik gabe lagata. Inongo laborategitan simulatu ezin izan dutenez, ondo ko urte luzeetan geu gure seme-alabekin izango gara esperimentuaren lekuko. Eta akuri nagusiak, Japoniako herritarrak. ■

hiruak elkartu izana, edo-eta horietako batek edo batzuek hormigoio geruza osoa zulatu eta lur geologikoan barna abantzatzen segitzea, edo bi-hiruren artean ore handia osatu ostean berriro olagarroa bezala beso bereizietan banatu izana. Baina datuak falta dira, ez TEPCOk eta ez Japoniako Gobernuak erakusten dituzte dauzkatena.

Agian agintariek corium hitza bahitu dute ongi dakitelako hori inola geldiarazterik ez daukatela. Magma gori horri gainetik ura jaurtitzea alferrikako ahalegina da. Dagoeneko zoruko hormigoian barnatuta ote dago? Txernobylen sobietarrek zentralaren azpialdea zulatu eta bigarren zoru lodi betonezkoa egin zuten —milaka gizonen osasuna sakrifika-

tuz— coriuma lur geologikoan barnatu ez zedin, inguruko lur eta urak areago kutsatuz. Zergatik ez ote dute gauza bera egin japoniarrek? TEPCO dirurik gabe dagoelako? Ura dagoelako azpian? Ala dagoenezko horretarako beranduegi delako?

Arrisku handiak sortzen ditu corium kontrolaezinak. Leherketak eragin ditzake, eten gabe hidrogenoa sortzen duelako. Dagoeneko lehertu dira lau eraikinak. Hori gutxi balitz, 4.ean erregai usatuak lurretik 20 metrora daude zintzilik, eta azpia lehertuko balitzaio... Eztandarik gabe ere, coriumak hormigoizko zimenduak hondatu litzake.

Baina bestelako leherketak ere eragin ditzake coriumak, lurrinezkoak. Agian —diote aditu batzuek beren





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Jose Ignazio Ansorena

Jai jasangarriak

Udako albistegi baten tituluetan entzun nuen: “Inongo udalak ekimen berritzailea abiatu du, jaiak jasangarri izan daitezten”. Zer ote da?, pentsatu nuen. Belarrietarako tapoiak banatzen hasi al dira? Su artifizialak bertan behera utzi? Berrogei urtetik gorako guztiak jaien bitartean nekazal turismoko baserri batera gonbidatu?

Edateko plastikozko ontzi berde berberabilgarriak banatu dituzte. Berri pozgarria omen zen kazetarien eta aurkeztu zuten politikoen hitzei eta aurpegiei erreparatuz gero. Nik ere entzundakoa an barre ederrak bota nituen.

* * *

Zestoa, zezenen kontrako mugimendua sortu omen zen. Baina herritar guztiak zirrara betean jartzen dituen *Amparito Roca* pasodoblea jotzeari uztea inork ez zuen nahi. Hortxe dago koxka, pasodoblea zezenekin lotuta al dago? Aurten Udal ordezkariak erreferenduma agindu omen dute. Nire botoa zezenketen aurka eta Jaime Texidorren pasodoblearen alde, jakin arren Amparo Roca hori, Bernat Soria, Espainiako Osasun ministro gezurtero ohiaren izeba zela. Emozioa nagusi.

Lesakan *Napoleones* martxa eraginkorra jotzen du urtero bertako Musika Bandak ezpatadantzarien ibilbidean, San Fermin eguneko festa ederrean. Espainiako Armadako musikari komandante batek, Ricardo Vidal Tolosak, Francoren Guardiaren paraderako espreski idatzia zela konturaturik, orain urte batzuk orduko Bandaren zuzendariak askoz jatorragoa zen *Oninen abuspez* sortu zuen. Baina dantzariak matxinatu egin ziren. *Napoleones* jo behar zen, bestela ez zuten dantzatuko. Ulegarria. Inoiz San Fermin egunean Lesakako kale estuetan barrena ibili bazarete dantzarien eten gabeko mugimendu eta gurutzaketak jarraituz, *Napoleones* martxaren airean, Kirgizistangoak edo Norvegiakoak izanda ere, ziur oilo larrua jarri zaizuela eta zirrarak gainezka egin dizuela. Emozioa nagusi hemen ere.

Aldiz, Iruñekoak baino San Fermin jai euskalduna-



DANI BLANCO

goak Lesakan igarotzera agertzen diren *giputxi* gazte gehienei, Donostian edo Hernanin jaiak izanagatik, ez zaie oilo azalik jartzen. Ordu horietan, gauez Lesakan lesakarrentzat festak jasanezinagoak izan daitezten beren ahalegin sutsua eskaini ondoren, lotan egoten direlako zerraldo. Ametsezko emozioa.

* * *

Honelako purrustadak ateratzen zaizkidanean, seme-alabek esaten didate *agure erretxin* bihurtu naizela. Izan daiteke. Ni, beste guztiak bezalaxe, egunero egun bete zahartzen naiz eta. Baina gizartean gero eta gehiago zabaltzen eta errotzen den pentsamolde eredu adoleszentea nerabeentzat ezinbestekoa den bezala, heltzen edo zahartzen hasita gaudenontzat erabat desegokia dela aldarrikatu nahi dut.

Gure jaietan kezkatzeko moduko zerbait gertatzen ari da. Eraso homofobikoak eta bortxaketak ugaltu dira eta manifak eratu arbuiatzeko. Neuk ere errefusatzeko ditut. Baina ez bakarrik erasoak, baita horietarako giroa suspertzen duten festa eredu neurrigabeak: jende andanak + zarata + beroa + alkohola + bestelako drogak + zigorgabetasun susmoa ekuazioaren emaitza oso arriskutsua baita. Urteak pasa ditugu entzuten borroka armatua arazo politiko baten ondorioa zela. Eta biolentzia horiek zeren ondorio dira ba? Pentsatu pare bat aldiz, ez nerabeen gisan.

Beste festa jasanezinak ere gertatu dira uda honetan. Aita Santuaren Madrilgo txangoa. Baionan hainbati hiltzen lagundu dien medikuaren atxiloteta. Hondarribiko Jaizkibel Konpaniari Herri-zaingo Sailak ibilbidea aldaraztea, segurtasun arrazoiak direla-eta emakume bat hil duten tiroen segurtasun ezari lehenago ez erreparatu izana. Konstituzioaren aldaketa klandestinoa. Krisiaren areagotzea eta langileen eskubideak urratzen jarraitzea. Potakumeen (Pota: *ommastrephe sagittatus*) ugalketa demasa. Ez dut uste hori dena konpontzen lagunduko duenik plastikozko ontzi berde batzuk banatzeak. Bertan botaka egiteko ez bada. ■


Gure jaietan kezkatzeko moduko zerbait gertatzen ari da. Eraso homofobikoak eta bortxaketak ugaltu dira eta manifak eratu arbuiatzeko. Neuk ere errefusatzeko ditut.

Baina ez bakarrik erasoak, baita horietarako giroa suspertzen duten

festa eredu neurrigabeak

ASTE HONETAKO

zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museooteiza.org

2



Tolosa Indoor Karting

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Iparraldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa GIPUZKOA

www.indoorkartinggipuzkoa.com

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2289. Argia)

TXONDORRA erretegia

- Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Karmen Zelaia Etxeberria (Bilbo)
- Irungo Justizia Jauregia (Irun)
- Jose Javier Murua Pagola (Donostia)

NAIROBITARRA

- Amaia Alvarez Uribe (Gasteiz)
- Jose Anjel Iturzaeta Martija (Zarautz)

EUREKA! zientzia museoa

- Kari Lopez Davalillo (Bañuelos, Galarreta)
- Gotzon Egia Goienetxea (Donostia)
- Anzizar Taberna, Isabel Garin Aldasoro (Beasain)

ARTIUM arte garaikideko euskal zentro museoa

- Larrako aek Euskaltegia (Bilbo)
- Arantza Egibar Arieta-Araunabeña (Bergara)
- Leitzako Liburutegi Publikoa (Leitza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

Euskara buruan eta ibili munduan.

Kultura garatzen duten ekimenei gure laguntza eskaintzea.

Gure **hizkuntza** sendotzen duten jarduerak babestea.

Eta hori guztia gogoz **abian jartzea**.

Horra **kutxa**k gizartearekin egina duen hitzarmena.



klikmetroak
KILOMETROAK2011 AZPEITIA EUSKAL HERRIA

Urriak 2. Azpeitiko Ikasberri Ikastola



gizarte
kutxa
zugandik zugana